




Energia garbia etxean

Posible al da energia berriztagarriaren instalazioekin bizitzea? Durangaldean 300dik gora dira etxeetan edo eraikinetan horrelako sistemak instalatu dituztenak. Hiru lagunek euren esperientzia kontatu dute erreportajearen, arrazoiak ezagutu eta bideragarritasuna aztertzeko. Eguzki energia hedatuko balitz, Durangaldean aire garbiagoa edukiko genukeela aldarrikatu du Eukeni Bastidak, bere etxeko teilatu berezitik. • 2-4

LEHIOZ ELORRIAGA

Egia eta justiziaren bila, kereilagaz aurrera egin gura dute Durangon

Durango | Bonbardaketako erasotzaileen zerrenda topatu zuen Jon Irazabalek argazkian ageri den liburuan. Horiek denak datu fidagarriak ez direla argudiatuta, udalak jarritako kereila artxibatu egin du epaileak. "Aitzakiak" erabiltzea egotzi dio Durango 1936 elkarteak. • 7. orrialdea



960.000 bisita izan ditu 'anboto.org'-ek

Durangaldea | ANBOTOren web-guneak erronka berriei heldu die. • 2. orrialdea

HAUR HEZKUNTZA | LEHEN HEZKUNTZA | DERRIGORREZKO BIGAREN HEZKUNTZA

Erdu Gurekin! Berrizko euskal eskola publikoa

AURREMATRIKULA
Urtarrilaren 29tik
otsailaren 9rarte

LEARRETA-MARKINA eskola
Learreta-Markina kalea z/g 48240 BERRIZ
Tel.: 946 824 344 | 014097aa@hezkuntza.net
www.learretamarkinaberriz.hezkuntza.net

IES BERRIZ BHI
Elizondo plaza 7A 48240 BERRIZ
Tel.: 946 824 962 - 015073aa@hezkuntza.net
www.berrizbhi.com

2 urtetik 16 urtera · Jantokia eta garraioa · Ikasleen eta gurasoen partaidetza bultzatuz





Berdeago Energy azokak energia berriztagarrietan interesa duten lagun askoren bisita jaso zuen joan zen asteburuan, Landakon.

Energia berriztagarrien 300 instalazio baino gehiago daude ezarrita Durangaldean

Ingurumenari mesede egiten dioten energia instalazioak etxeetan ezarri dituzten herritar batzuek euren esperientziak kontatu dituzte hurrengo orrialdeetako erreportajearen

DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA

Han eta hemen berba asko egiten da energia berriztagarriez. Baina, aukera erreal bat dira ala praktikan eraginik ez duten amets hutsak? Ingurumenari mesede egiten dioten energia instalazioak euren etxeetan ezarri dituzten herritar

Biomasa galdarak dira ezagunenak, baina berogailuak indarra hartzen ari dira

batzuen esperientziak ezagutu gura izan ditu ANBOTOK hurrengo orrialdeetan, euren arrazoietan sakontzeko eta bideragarritasunik ba ote duten aztertzeko.

Uneotan alternatiba diren hainbat aukera joan zen asteko Berdeago Energy azokan ikusi ahal izan ziren –asteburu honetan elikadura ekologiko eta arduratsua izango da gaia Berdeago Naturegaz–. Bertan egon ziren Berrizko Ekidom enpresakoak, energia berriztagarrien sistemak instalatzen erreferentzia handia lortu dutenak. Durangaldean 300 instalazio baino gehiago ezarri dituzte berriztarrek 2006tik hona, eta estatu osoa kontuan

hartuta, 1.000 interbentzio egin dituzte. Eguzki plakak, galdarak, berogailuak, biomasa sukaldeak... aukera ugari eskaintzen dituzte. Durangaldean, biomasak dauka arrakastarik gehien, Josu Salazar arduradunak dioenez. “Sistematik gogokoena da baserri eta antzeko eraikinetan, geotermia eta aerotermia lekua irabazten ari diren arren”. Biomasa galdarak dira agian ezagunenak, baina berogailuak indarra hartzen ari dira. Etxeetan lez, eskualdeko hainbat udal eraikinetan jardun dute, Izurtzan eta Abadiñon, esaterako.

Iaz, plaka termikoek %35eko laguntza eduki zuten, eta fotovoltaikoek %30ekoa

Eguzki energia, polemikan

Instalazioaz gainera, sistemen jarraipena egiten dute Ekidomekoek, eta diru-laguntzen tramitazioa ere bai –Erkidegoan espediente gehien tramitatu dituen enpresa da–. Eguzki plakei dagokienez, aurtengo laguntzen deialdia publikatzeko dago; iaz, Energiaren Euskal Erakundeak emanda, plaka

termikoek %35eko laguntza eduki zuten, eta fotovoltaikoek %30ekoa. Azken urteetan bajatu egin dira laguntza horiek, baina, kontrara, plaken prezioa ere bajatu da. 10 urteren bueltan amortizatzen da inbertsioa, eta plakek 25 urte inguruko iraupen egokia izaten dute. Polemika piztu da eguzki energiaren inguruan, laguntzak bajatzeaz aparte, energia horri zerga bat ipintzeko asmoa agertu duelako espainiar gobernuak. Baina Salazarrek argitu du ez dela ezarri eta, bere ustez, interesdunei beldurra sartzeko izan da.

Europako helburuak

2030ean, kontsumo energetikoaren %35 iturri berriztagarrietatik etortzea. Horixe da Europako Parlamentuak duela aste bi ezarri duen helburua, eta bide horretan lan egiteko deia egin die estatuei. Salazarren ustez, “lan asko” egin beharko dute hori betetzeko, “laguntzak handitzea eta tasa absurdoak ez ipintzea”, esaterako. Parlamentuak nabarmendu du ekoizleek ez luketela tasa berezirik ordaindu behar. Bestalde, 2022rako, gasolindegien %90ean auto elektrikoek kargagailuak egotea aurreikusitako dute.

DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA

Duela hamar bat urte, Eukeni Bastidak eta bere familiak eguzki plakak ipini zituzten lurretako Bakixa auzoan duten baserrian. Gehienak plaka fotovoltaikoak, eta beste bat termikoa. Ingurumena zaintzeko ikuspegiarekin gainera, ekonomikoki ere apustu bat zen. Eta ondo ateratzea argi du Bastidak. Pozik dago, energia berriztagarria sortzen ekarpena egiten dutelako, eta eguzkiaren bidez, urteko zati handi batean ur beroa lortzen dutelako. Gainera, kezka handia eragiten dion beste gai batez lotzen du: Durangaldeko airearen kalitatea. Eguzki plakak hedatzea aire osasuntsuagoa lortzeko bide bat dela ohartarazi du, dieselaren kontsumoa bajatuko litzatekeelako. Bestalde, laguntza eta sustapen aldetik, sasoi hobea zen euren instalazioa ezarri zuteneko, baina oraindik ere ekonomikoki errentagarria dela azpimarratu du.

Zelako instalazioa duzue etxean?

Lau bizi gara etxean, eta eguzki plaka termikoak kasik urte oso-rako ur beroa ematen digu. Duxarako, harrikoa egiteko... Beste plaka guztiak, fotovoltaikoak dira, argindarra sortzen dute; kasu horretan, sarera botatzen dugu horietatik datorren energia guztia, eta Iberdrolak erosten digu. Etorrizunerako, plaka fotovoltaiko berri batzuk ipini gura ditugu, eta horiek autokontsumorako erabili. Ohiko fakturari zerbait kendu ahal izango diogu horrela. Ohiko prezioa enpresa elektrikoek, gobernuen eta petrolio-konpainien esku dago; plakekin, ostera, eguzkiaren arabera. Zerutik datorren energia da, eta agortezina da; horretarantz jo beharko genuke.

“**Zerutik datorren energia da, eta agortezina da; horretarantz jo beharko genuke**”

“**Etxeko asmakizunik onena da, ze gozada bat da urtean sei hiletan galdara amatatuta edukitzea**”

Zergatik ipini zenituzten plakak energia berriztagarri hori saltzeko, eta ez autokontsumorako?

Bere sasoiaren ingurumenaren ikuspegiarekin gainera, inbertsio mota bat ere bazen fotovoltaikoak jartzea. Errendimendu onagaz 25 urtetik gora irautea dutela esaten



dute, eta laguntzak urte horietara lotzen zintuen. Instalazioetarako ere diru-laguntzak daude, denboragaz bajatu egin direnak. Bestalde, konpainia elektrikoekin loturarik ez edukitzeko, energia almagatzeko bateriak ipini beharko zenituzke etxean.

Laguntzak bajatu direla diozu, baina plaken prezioa ere bai, ezta?

Bai, plaken prezioa asko bajatu da guk ipini genituenetik. 6-8 bider merkeagoa izango da igual.

Eta zergatik egin zenuten plaka termikoa ipintzeko apustua?

Zenbait aukera aztertu genituen, eta instalatzera etorri zirenean, termikoaren aukera komentatu ziguten. Etxeko asmakizunik onena da, ze gozada bat da urtean sei hiletan galdara amatatuta edukitzea. Sistema hori ez da urte oso-rako ailegatzen; neguko eguzki faltagatik, beste sistema bat ere eduki behar duzu prest, gasa, gasoila... Termikoa agortzen den uneetan, bestea pizten da. Gure kasuan, pelleta [egurretik datorren biomasa] erabiltzen dugu. Plakarena satisfakzio bat da, eta, gainera, 6-8 urtean amortizatu egiten duzu.

Beraz, animatu ahalko zenuke jendea zuen moduko instalazioak ezartzera?

Bai, eta horrelaxe egiten dut etxera etortzen direnekin ere. Izan ere,



Eukeni Bastida Barquero
Eguzki plakak ipinita ditu bere etxean
Iurreta | 1979

“Auto batek 8.000 kilometro egiteko beste energia sortzen dugu urtean”

Eguzki plaken erabilpena hedatuta, petrolioarena bajatu eta airea garbiagoa izango litzatekeela nabarmendu du Bastidak

ingurumena zaintzeaz aparte, ekonomikoki aukerak ematen dituela ikusten da. Plaka termikoak, adibidez, denboragaz ez du inolako trabarik eduki. Ikuspuntu ekologikoa ondo dago, baina arrazoi horregaz bakarrik, kontzientziazatuta dagoen jendea baino ez litzateke gehituko. Ekonomikoki ondo irtetzen dela ikusiz gero, beste gauza bat litzateke.

Kontrara, eguzkiari zerga ipintzeko mamua ere zabaldu dute.

Kontua da, nire ustez, batzuei ez zaiela interesatzen norbera energia sortzaile izatea. Denok eginez gero, beste batzuen *pastela* jaten zabilta. Hemen bertan ere, urrutira joan barik, badakigu ate birakariak egon izan direla. Josu Jon Imaz alderditik irten eta lau egunera petrolio-enpresa batean presidente zen. Aldundi baten diru sarreren zati handi bat enpresa horren esku badago, bere alde egin du. Eta enpresak ez du interes

handirik edukiko gu autoaskiak izateko, azken petrolio tanta erre arte bereagaz jarraituko du. Eguzkiaren zergagaz, enpresei kentzen diezun zati hori konpentsatzea eta jendeari beldurra sartzea gura dute, berriztagarrien ate hori ez ikusteko. Eguzkiari zerga bat ipintzea? Ez dauka zentzurik. Guk, etxean, bidoi batean euri ura almatzen dugu gerorako; ez dauka zentzurik gure bidoiari zerga bat ipintzeak, ezta? Bada, eguzki plakei ere ez.

Beraz, instituzioek gehiago egin lezakete?

Konbentzitututa nago instituzioetatik askoz gehiago egin daitekeela. Kanean auto elektrikoentzako postuak ipini, etxeetan plakak ipintzea sustatu... Kutsagarriak direnentzat zergak arautu beharko litzukete. Dieselak, adibidez, zerga sanitarioa eduki beharko lukeela uste dut. Badakigu merkeagoa daukagula zerutik datorrena, eta,

gainera, garbia dela, eta ez digula ondorioz ekarriko. Petrolioaren arnastea arazo bat da, Durangaldean uneotan daukagun horixe hain zuzen ere. Birritan pentsatu beharko genituzke horrelako gauzak.

Ingurumenaren eta osasunaren gaiak Durangaldeko airearen kalitateaz kezkatzen ere eraman zaitu. Eguneroko datuei jarraitzen diezu, adibidez.

Duela 15 bat urte etorri nintzen Bergararik hona bizitzera, eta al-

dea dago ondoko bailaratik hona airearen kalitateari dagokionez. Edozeinek esango dizu hemen hatsa dagoela. Eta hatsa bakarrik balitz... baina ikusten ari gara ez dela hori bakarrik, kaltea dakarrela. Durangaldean minbizi kasuak

“

Badakigu merkeagoa dela zerutik datorrena, eta gainera garbia dela, ez digula ondorioz ekarriko”

%17 altuagoak dira Euskal Herriko beste leku batzuetan baino. Beraz, ez da txantxetan ibiltzeko gaia. Gudan eta gure umeengan eragina dauka.

Eta egoera horrek ba al du alternatibarik zure ustez? Energia berriztagarriek lagundu dezakete?

Nik uste dut barneratuta daukagula, daukagun bizi mailagatik ordaindu beharreko prezioa dela aire zikina arnastea. Eta hori ezin dugu inolaz ere onartu. Gainera, uste dugu ez dagoela beste aukerarik. Seguruenik, kontrol gehiago egon beharko litzaietxe enpresei. Ekonomia ala osasuna; une batean lehenbat bat ipintzera heldu beharko gara. Nire etxeko eguzki plakekin, auto batek 8.000 kilometro egiteko beste energia sortzen da urtean. Beste era batean esanda, etxebizitza bi urtebetean hornitzeko beste ematen dute. Pentsa kanean zenbat teilatu eta pabilioi dagoen. Denok berdina eginez gero, pentsa zenbat petrolio utziko genukeen alde batera. Norvegiar, esaterako, saltzen dituzten autoen %45 elektrikoak dira. Adituei entzuna diet diesel autotik elektrikorako trantsizioa 5 urtean egin ahalko litzatekeela. Baina, seguruenik, ez dira soldaduak hemendik Irakera bidali egun bitara elektrikorara pasatzeko. Horri errentagarritasuna atera gurako diote, agortu arte.



LENIOR ELORRIAGA

“Geotermiagaz oso pozik nago. Hasieran inbertsioa garestia da, baina merezi du”

Lurraren berotasuna baliatuz, Bego Marinak etxea eta ura berotzen ditu



Bego Marina, geotermia sistemaren ardatzean, hodiai betetako harresian.

ABADIÑO • JONE GUENETXEA

Bego Marina Azpitartek geotermia sistemaren bidez berotzen ditu Abadiñoako Gerediaga auzoan duen etxeke ura eta berogailua. Duela ia hamar urte hartutako erabakiaz ez da damutzen.

Zelan funtzionatzen du?

Teknikoki ez nuke jakingo sakonean azaltzen, baina, oinarrian, ura berotzen du, pilatu egiten du, eta joan-etorrian ibiltzen da. Sistema martxan jartzeko, argindarra baino ez da behar. Beste guztia sistemak berak sortzen du. Etxearen kanpoko aldean hodiz betetako harresi bat dago, eta bertan dago geotermia sistemaren oinarrian dagoen zuloa eginda. Ez da horren sakona.

Etxean ez dago erradiadorerik.

Ez, zoruaren azpian dauden hodiak pasatzen den urak berotzen du etxea. Gainera, gune bakoitzean zein tenperatura gura duzun markatu dezakezu. Edo kanpoan egiten duen tenperatura-

ren arabera, barruan gura duzun tenperatura mantendu dezakezu. **Pozik zaude sistema honegaz?** Oso pozik, %100ean. Hasieran inbertsioa garestia da, baina, gero, merezi du.

Momentuz, etxe sistema hau ez da etxe askotan erabiltzen. Zuk nondik atera zenuen informazioa?

Orain zortzi edo bederatzi urte, etxean obra egin nuenean, argi nuen ez nuela erradiadorerik gura. Horrela hasi nintzen informatzen eta berriztagarrien gaian sakontzen. Biomasa galdarak begiratzen ibili nintzen, baina lekua behar nuen biltegia izateko. Donostiako enpresa batera deitu nuen, eta sistema honi buruz hitz egin zidaten. Harritu egin ninduen. Teknikoak esan zidan, hotz handia egiten zuen egun batean zuloa egiteko lurrean, eta hankak sartzeko bertan. Bero hori da sistema honen ardatza. Eta neguan, izotza egiten duenean, hodiak ez dira izozten, eta beroa berdinduz mantentzen da.

MAÑARIA • AITZIBER BASAURI

Energia berriztagarrien inguruan informazioa falta dela uste du Igor Notariok, eta beharrezkoa deritzo energia mota hau azalarazteari eta laguntzeari. “Guk gure aletxoak ipini dugu eta oso harro gaude”.

Energia berriztagarrien aldeko hautua egin duzue. Nolatan?

Ingurumenarekiko kontzientzia izan dugu beti; beheko suan, ura berotzeko galdara genuen. Baina, duela bost urte, etxean obra egitea erabakita, bide bat edo bestea hartu beharrean izan ginen. Gas sarerik ez dago herrian, eta biltegia jarri behar izan genuen. Gasak eta gasoilak ez ziguten segurtasunik ematen eta energia berriztagarrien aukera aztertu genuen.

Nola egiten duzue ura berotzeko?

Biomasa edo pellet galdarak, eguzki-plakek eta beheko suak lotura dute 1.000 litroko galdaragaz. 700 litro berogailurako dira, eta beste 300 komunerako, sukalderako....

Pozik? Nola ikusten duzue gizartearen erantzuna honen aurrean?

Oso pozik. Informazioa falta da. Energia mota hau erakustea behar da, eta lagundu. Administrazioen inplikazioa behar da eta energia berriztagarrien aldeko apustua egitea, gehiago Europatik datozen irizpideak ikusita. Gure aletxoak ipini dugu eta oso harro gaude.

Zeintzuk dira onurak?

Hasierako inbertsioa altuagoa da. Guk laguntzak izan genituen. Baina gero, %40 aurrezten da hilero. Guretzat erraza da egurra lortzea, eta beraz, pelleta da gure gastua. Bestalde, maiatz-ekainean hasi eta irail-urrira bitartean nahikoa dugu eguzki-plakekin ura berotzeko.

Bide luzea dago egiteko?

Bai, gero eta kontzientzia gehiago dago, baina laguntza behar da, apustu bat egitea, energia garbiari trabak jartzeari uztea. Informatzera animatu gura nuke. Zenbat eta gehiagok erabili energia garbia, aukera gehiago aurrera egiteko.

“Administrazioen inplikazioa behar da eta energia berriztagarrien aldeko apustua”

Biomasa galdara, eguzki plakak eta beheko suak darabilte etxerako ura berotzeko



Igor Notario, biomasa galdararen eta 1.000 litroko ur biltegiaren alboan.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2018ko urtarrilaren 26a
16. urtea - 706. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
11.500 ale



Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Markel Onaindia Txabarri.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Eneritz Urrutibeaskoa Elordi eta Alazne Salcedo Artetxe.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri, Maialen Zuazubiskar Gallastegi eta Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Bea Sierrasesumaga Guezuraga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.

LAGUNTZAILEAK

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Ekologia eta kontsumo arduratsuaren Euskal Azoka

berdeago nature

2018ko **URTARRILAK**
27, 28



SARRERA DOHAINIK



LANDAKO GUNEA
DURANGO

www.berdeago.com

ANTOLATZAILEA | ORGANIZADOR



BABESLEAK | PATROCINADORES



2017an 960.000 bisita izan ditu www.anboto.org-ek

laz Instagram, Telegram eta Whatsapp zerbitzuak jarri zituen martxan ANBOTOk eskualdeko irakurle gehiagorengana heltzeko asmoz

DURANGALDEA • JOSEBA DERTEANO
ANBOTO Durangaldeko euskara hutsezko astekari bakarra da, urtez urte hazten doan www.anboto.org webgunea duena. 2017an webguneak datu bikainak utzi ditu, bai hedabidearentzat, bai euskararen normalizatorako bidean. Iaz, esaterako, 2016ko datuekien aldearata, %21 igo zen bisita kopurua. 2016an, www.anboto.org-ek 788.177 bisita izan zituen, eta 2017an, berriz, 960.000 bisita izan ditu.

Hazkunde hori ez da bakarrik bisita kopuruan nabaritu. Izan ere, irakurle kopuruak ere gora egin du, eta baita www.anboto.org maiztasunez erabiltzen duten irakurle fidelen kopuruak ere. 2016an bisitari fidelak %65,5 izan ziren, eta 2017an, oster, bisitarien %69,4.

Bestalde, sare sozialen bitartez Anbotoren jarraitzaile direnak ere gero eta gehiago dira: 2017 hasieran Facebooken 2.251 jarraitzaile zituen ANBOTOk orriak, eta urte amaieran 3.108 jarraitzaile, hain zuzen. Twitterren, @anboto kontua dauka hedabideak, eta bertan

2.721 jarraitzailek Durangaldeko aktualitateari jarraitzen diote.

Horrez gain, 2017an @anbotokomunikabideak kontua sortu genuen Instagramen, etorkizuneko irakurleengana iristeko asmoz.

Edukiei dagokienez, webguneak eta sare sozialek eskaintzen duten berehalakotasuna aprobe txatuz, ANBOTOk lantaldeak ahalegin berezia egiten du irakurleei unean uneko informazioa emateko eta baita gai batzuen inguruko zuzeneko jarraipena egiteko ere. 2017an horren adibide izan ziren Korrika eta Gure Esku Dago dinamikak antolatutako herri galdaketetan egindako jarraipenak. Informazioa jaso ahala, zuzeneko kontaketa egiten jardun zuten ANBOTOk kazetariak.

Irakurleak, informatzaile

Bestalde, ANBOTOk Instagram, Telegram eta Whatsapp zerbitzuak jarri zituen martxan irailean, irakurleek eskualdeko azken berriak mugikorrean zein tabletan jaso ditzaten. Horrez gain, bide berri hauei esker, irakurleek in-

formatzaile bihurtzeko aukera ere badaukate. ANBOTOk berriak telegram zerbitzuaren bitartez jasotzeko, bilatzailearen

bidez ANBOTO kontuan sartu eta 'hasi' botoian klik eginda, azken berriak mugikorrean jaso ditzakete irakurleek. Whatsapp

zerbitzuaren bidez berriak jasotzeko, berriz, 688 635 041 telefono zenbakira 'ALTA' mezua bidali behar da.



2016an baino %21 bisita gehiago izan zituen ANBOTOk webguneak 2017an



MAIALEN ZUAZUBISKAR GALLASTEGI
Abadiño, ANBOTOk Kazetaria

“ANBOTOk webguneari berehalakotasuna eta gaurkotasuna emateko apustua egin du”

kotasuna eta gaurkotasuna emateko apustua egin du, irakurleei unean uneko albisteak eskainiz. Gainera, duela urte bi guardiak egiten hasi ginen irakurleei edozein egun zein orduan azken ordukoen berri emateko, eta horrek zerikusi zuzena izan du bisiten gorakadagaz.

Informazioa irakurtzeko ohiturak asko aldatu dira, ez dira gauza bera papera eta weba. Informazioa ekoizteko orduan ere, kontuan hartzen al duzue hori?

Bai. Papererako edukiak sakonago

lantzen ditugu. Weberako, berriz, bisitariak erakartzeko asmoz, gauza bisualagoak egiten ahalegintzen gara: bideoak, argazki galeriak... Gaur egun bisitarien gehiengoa mugikorretatik sartzen da webguneetara, eta horrek bizkor kontsumitzeko produktuak sortzea eskatzen digu.

Egiten al duzue webguneko emailtzen jarraipena?

Bi asterik behin lantaldean aztertzen ditugu emailtzak. Datuak aztertzea ezinbestekoa da egiten gabiltzan lanak fruituak eman di-

tuen ikusteko eta baloratzeko.

Jasotako bisiten artean, zenbat dira mugikorretik etorritakoak? Eta sare sozialeetatik?

Bisiten %63,37 dira mugikorretik etorritakoak, eta sare sozialen bidez, %40,28. Gaur egun sare sozialek indar handia dute, eta Facebook bidez tokiko hedabideok bisita asko jasotzen ditugula ikusi daiteke.

Sare sozialen indarraren aurrean neurririk hartu duzue?

Bai. 2017 hasieran Facebookera bideratzeko eduki propioa sortzea

erabaki genuen. Orduz geroztik, elkarriketatuei bideo laburrak egiten dizkiegu eta, ondoren, Facebooken zuzenean zabaltzen ditugu.

Facebookeko jarraitzaileak nola-koak diren aztertzen duzue? Ez al dira gaztetxoak?

ANBOTOn jarraitzaileen %32,41 35 eta 44 urte bitartekoak dira eta %26 25 eta 34 urte artekoak. 24 urtez azpikoak, berriz, %6 baino ez dira.

Zeintzuk dira erronkak?

Edukiak lantzerakoan estrategia digitalean asmatzea da gakoa. Argi dago ikus-entzunezkoek geroz eta indar handiagoa dutela interneten, eta gu ere kontsumo ohitura berrietara moldatu behar gara.

Gure ateaak
Zabalik
dituzue!!!



Atxondoko
Herri eskola

Matrikula
epea
Zabalik!!!

Urtarrilaren
29tik
Otsailaren
9ra

eskola txikia, bizipoz handia!

Herriko taberna sortu zutenak omenduko dituzte Castet-en 25.urteurrenean

ZALDIBAR • A.M.

Egun osoko egitarauagaz ospatuko du Castet kultur elkarteak 25. urtemuga. Bihar, urtarrilak 27, 13:00etan egingo den ekitaldiagaz emango zaio hasiera egitarauari; tabernaren sortzaileak omenduko dituzte bertan. "Hasieran bezala, elkartearen helburua kulturgintzaren eta oroimen historikoaren alde lan egitea da", azaldu du Ainhoa Zabarte Casteteko kideak. Herri bazkaria egingo dute ostean, eta, iluntzean, Deiedrak dantzari jarriko ditu bertaritzen direnak beraien rebel-folk doinuekin.

Mende laurdena urrian bete arren, urteurren jaia urtarrilera atzeratu dute taberna eraberritzeko auzolanean egindako obregatik. 25 urteotako ibilbidea gorabeheratsua izan arren, aurrera egiteko indarra auzolaneetik atera dutela nabarmendu du Zabartek. "Azaroaren 5ean hasi eta 29ra arte goiz eta arratsalde aritu zen jendea lanean taberna berritua zabaltzeko".

Otea Loran elkarteko bazkideek batzar orokorra egingo dute domekan

GARAI • AITZIBER BASAURI

Otea Loran elkarteko bazkideek batzar orokorra egingo dute domekan, urtarrilaren 28an. Bazkideen altak eta bajak jakinaraziko dituzte, eta azken urteko gorabeherak azaldu.

Horrez gain, Zuzendaritza Batzordea berriztuko dute. Garaiko Otea Loran elkarteak 80 bazkide inguru ditu gaur egun. Batzar orokorrerako lehenengo deialdia 11:00etan egin dute elkarteok.

Epaileak artxibatu arren, bonbardaketaren egileen aurkako kereilagaz aurrera egin gura du udalak

Durango 1936: "Salaketa artxibatzeke benetako arrazoiak beste batzuk dira, eta badakigu guztiok zeintzuk diren"

DURANGO • J.G. / M.O.

Epaileak artxibatu egin du Durangoko Udalak bonbardaketaren egileen aurka uztailean aurkeztutako kereila. Uztailearen 18an sartu zuen alkateak kereila Durangoko epaitegian, Martxoak 31 batzordearen izenean. Orain, artxibatzea etorrira, aurrera jarraitzeko asmoa agertu du udalak. "Durangok bere konpromisoa bere horretan mantentzen du, lanean elkarregaz jarraitzeko, benetan gertatutakoa ikertu eta beharrezko frogak bilatzeko", adierazi du udalak prentsa oharrean. "Biktimei eta kaltetuei zor zaien egia, justizia eta ordaina eskuratzea" beharrezkoa dela uste du udal instituzioak.

"Aitzakia-bilduma"

Kereilaren sustatzaile izan zen Durango 1936 elkartearen ere helegitea aurkeztearen alde dago. Oso kritikoa agertu da epailearen sententziagaz. "Epaileak agertutako argudioak hitz tekniko ondo apaindutako aitzakia-bilduma dira. Salaketa artxibatzeke benetako arrazoiak beste



Udalak uztailearen 18an aurkeztu zuen kereila, hainbat elkarteren babesagaz.

batzuk dira eta durangar guztiok ederto dakigu zeintzuk diren".

Gerediaga elkarteko Jon Irazabalek ikerketa egin zuen Aviazio- Legionariako italiar faxisten nortasunak identifikatzeko, Erromako artxibo militarrean araka-

tuta. Hainbat artxibotako egunero koetan agertzen zen Durango bonbardatu izanaren aitortpena, baita une horietako argazkiak ere. Baina epaileak ez ditu fidagarritzat jotzen identifikazio horiek. Gainera, salaketailearen esku utzi du erasotzaileak bizirik dauden ala ez ikertzeko ardura. "Salaketaileak frogatu behar ei du salatuak bizirik dauden ala ez. Harrigarria!", dio Durango 1936k komunikatuan. "Egia, justizia eta ordaina" lortzeko lanean segitzeko deia egin du.

EH Bilduk amaitu du eraberritze prozesua

Euskararen normalizazioa eta feminismoa lantzeko barne talde bana sortzea erabaki du alderdiak, besteak beste

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Durangoko EH Bilduk zapatuan amaitu zuen alderdia eraberritzeko prozesua, ERA izenez aurkeztutakoa. Horren ondorioz, lan ildo berriak zehaztu dituzte, eta zenbait lantalde sortzea ere erabaki dute. Besteak beste, lantalde feminista batez ikastaro feministak sortzea adostu dute, eta baita euskararen normalizaziorako bilgune

bat ere. Gainera, alderdiaren talde eragilea izango dena zelan osatu erabaki dute: udaleko zazpi zinegotzietatik aparte, beste zazpi herritar hautatuko dituzte herri batzarren bitartez.

Plateruenean egin zuten azken hausnarketa, eta botoa emateko aukera ere egon zen. Aritz Bravoren esanetan, 74 lagunek parte hartu zuten bozketan.



Zapatuko batzarrean parte hartu zuten kideak, ostean ateratako argazkian.



DURANGALDEKO HELDUEN HEZKUNTZAKO IKASTETXEA
CEPA DURANGO HHI
Doako irakaskuntza ofiziala

Laubideta kalea, 6 DURANGO • Tel.: 946 814 253
www.epadurango.hezkuntza.net

IRAKASKUNTZA ARAUTUA

- Atzerritarrentzako gaztelania eta euskara ikastaroak.
- Hasierako irakaskuntzak.
- DBHko graduatua.

IRAKASKUNTZA EZ ARAUTUA

- Unibertsitaterako sarbide probak.
- Goi mailako zikloetarako sarbide probak.
- Informatika ikastaroak.
- Ingelesa, frantsesa (hasiera maila).



MATRIKULA ZAITEZ - 946 814 253
www.epadurango.hezkuntza.net

MATRIKULA-EPEA: Urtarrilaren 15etik otsailaren 2ra

Matrikula egiteko ordutegia:
Asteleheneetik ostegunera: 09:00-13:00/16:00-19:00
Ostiralean: 09:00-13:00

Durangoko etxe hutsen errolda ofiziala egiten hasi dira, langabezia dauden sei herritar horretarako kontratatuta

Herrian 1.500 etxe huts daudela uste du udalak, eta gazteen alokairura bideratzeko ahalegina egin gura du

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Durangon 1.500 etxe huts daudela uste dute, eta errolda ofizial bat lantzerako doaz udalean. Helburu nagusia etxebizitza horiek alokairura bideratzen saiatzea da, behin etxeak hutsik daudela egiaztatzean. EAJk, EH Bilduk eta PSE-EEk adostutako Enplegu Planaren bidez landuko dute errolda ofiziala; sei lagun kontratatu dituzte etxerik etxe joateko, eta sei hileko epean jakin ahalko da zehaztasunez Durangon zenbat etxe huts dauden. 110.000 euroko aurrekontua du proiektuak, eta 75.000 Lanbidek ipiniko ditu.

Aitziber Irigoras alkateak (EAJ), Pilar Rios alkateordeak (PSE-EE) eta Dani Maeztu zinegotziak (EH Bildu) eman zuten ekimenaren be-



Kontratatutako sei lagunak etxerik etxe joango dira, hutsik dauden egiaztatzeko.

rri eguazteneko prentsaurrekoan. Irigorasek azaldu du etxebizitza eta enplegu politikak sustatzea izan zela gobernu akordioaren oinarria, eta proiektu honetan biak uztartzen direla. Akordioa lortzeko hiru alderdiek eginiko “lan itzela” aitortu du alkateak. Riosek adierazi du alokairua dela “aukera bideragarri bakarra” gazteentzat, eta hori sustatu gura dutela ekimenagaz. Izan ere, etxe hutsen jabeek informazioa eskaintzea ere bada euren asmoa. Bestalde, San Fauston gazteei begira alokairu sozialean ipiniko dituzten txandakako 6 etxeen arautegia —beste 5 ere eskainiko dituzte laster— datorren osoko bilkuran onartuko dela aurreratu du.

Zabalduko Ditugu gazte mugimenduak alokairu sozialaren aldeko mozioa aurkeztu zuela gogoratu du Maeztuk, eta errolda osatzea horretarako lehen pausoa izango dela. Bestalde, erroldari esker etxe hutsei zerga berezi bat ezartzeko modua ere egongo dela adierazi du, horien merkaturatzea bultzatzeko beste amu bat izan dadin.

TXINTXIRRI ELORRIKO IKASTOLA
BIDEA ZABAITZEN

TXINTXIRRI ELORRIKO IKASTOLA

Matrikula berriak egiteko epea zabalik urtarrilaren 29tik otsailaren 9ra bitartean

elorrrio@ikastola.eus - www.elorrikoikastola.eus - telefonoa: 946582261

Inauteriei begira, mozorroaren osagaiak egiteko tailerra egingo dute

IZURTZA • J.D.

Otsailaren 10ean inauteriak dira, eta egun horren harira mozorro tailerra antolatu du udalak. Otsailaren 8ko eguenean izango da, 17:30etik 19:30era, jubilatuen lokalean. Bertarazten direnek mozorroetarako kareta edo apaingarriak egiteko aukera izango dute, besteak beste. Umeek zein helduek parte hartu dezaketen tailerra izango dela azaldu dute udal ordezkariak.

Elkarteen ekarpenak proposamen batean aurkeztuko ditu udalak otsailaren 2an

MAÑARIA • J.D.

Herriko elkarten beharizanak jakin eta aurrekontuetan jasotzeko, eurekin batzartu dira udal ordezkariak. Batzar bi egin dituzte, eta bat falta da. Batzar hori otsailaren 2an egingo dute, 19:00etan. Lehen batzarrean diru-laguntzak izan zituzten berbagai. Bigarrean, elkarteek euren proposamenak egiteko aukera izan zuten. Udalak ekarpen horiek proposamen batean batu eta elkarteekin eztabaidatuko du azken batzarrean.

Etxebarria zinegotziaren liberazioa kentzea eskatuko du EH Bilduk

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Kultur eta kirol arloko burua den Eneko Etxebarriaren kargugabetzea eta liberazioa kentzea eskatuko du mozio bidez EH Bilduk. “Ia hiru urte igaro dira legegintzaldia hasi zenetik, eta gure herrian hutsune eta gabezia nabariak daude kultur eta kirol arloetan hasieratik”, adierazi dute prentsa ohar bidez oposizioko kideek. EH Bildukoek ondorengo gabeziak aipatu dituzte: kultur eta kirol batzordea “oso gutxitan batzea”, kontseiluak “hiltzen uztea”, kultur zein kirol elkartei “kriterio subjektiboetan” oinarritutako diru-laguntzak ematea eta harrakadetan egon den bertso saioa eskaintza kulturaletik kentzea, bestek beste.

Egoera honen aurrean, oposizioko kideek “gogor” salatu dute EAJk eta Abadiñoko Independententek duten jarrera. “Elkarregaz gobernatzeko pakтуagaz EAJk liberatu bat izatea lortu zuen, eta Independententek haien botoak behar dituztenez gobernatzeko, kultur eta kirol arloetan dauden hutsuneen aurrean ezikusiarrena egiten dute”, adierazi dute. Hori horrela, urtean 22.600 euroko soldata jasotzen duen zinegotziaren kargugabetzea eskatu dute EH Bilduko kideek.

Iaz baino 75.000 litro gehiagogaz hasi dute sagardo denboraldia, Aiora Renteria aurtengo enbaxadore dutela

Neguan eta udaberriaren komeni zen eguraldia egin du eta sagar asko jaso ahal izan dute

ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO

Bizkaiko sagardo ekoizleek 200.000 litro sagardo ekoiztu dituzte, aurtent, bertako sagarra erabilia. Iaz baino 75.000 litro gehiago dira. Aurtengo uzta "ikusgarria" izan dela nabarmendu du Bizkaiko Sagardogileen elkarteko presidente Aitor Intxaurragak Zornotzako Uxarte sagardotegian asteon egindako aurkezpenean.

Neguan behar adinako hotza egin du hainbat egunetan, eta uda leunak, hezetasun larregirik ba-

koak, loraldiari lagundu dio. Horiek dira uzta handiaren arrazoi nagusiak. Aurtengo sagardoa "oso usaintsua eta kolore aldetik argiagoa" dela azaldu du Intxaurragak, eta iaz baino graduazio baxuagoa du (%6).

Aiora Renteria Zea Mays taldeko musikaria izan da aurtengo sagardoa dastatzen aurrenekoa. Bizkaiko sagardoaren enbaxadore izatea "ohore bat" dela eta sagardoalea dela adierazi du. "Kontzertuen osteko afarietan, ondoan botila bat sagardo izaten dugu edateko".

Prestigioa ematen

Hainbat erakundetako ordezkariak batu ditu aurkezpenak. Eusko Jaurlaritzako Elikagaien Kalitate eta Industriako sailburuorde Bittor Orozek jatorrizko izendapenaren bide "arrakastatsua" izan du berba-gai, besteak beste. "Kontsumitzaileen artean sagardoari prestigioa emateko lanean jarraitu behar dugu. Kontsumitzaileek sagardoaren balioa gero eta gehiago errokonozitu dezaten gura dugu", azaldu du Orozek aurkezpenean.



Zea Mays taldeko Aiora Renteriak eman dio hasiera aurtengo txotx denboraldiari.

Osasun gida

anboto

Optometria
PSE: 162/13

keinu optometria zentroa

Naia Zabala Azumendi
11587 kol. zk.

- Optometriaren teknika aintzindariak.
- Kontaktologia.
- Haurren ikusmena.
- Ikusmen terapia.
- Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia.
- SENA estimulazio neuroauditiboa.
- Orto-k.

Arkaraz 3
48240 Berriz
tel: 946225099

www.keinuoptometriazentroa.com

Pedagogia
PSE: 63/63

UGATZ

UMEAREN GARAPENERAKO ZENTROA
Laguntza goiztiarra, psikomotritzitatea, fisioterapia, logopedia

Juan Olazarán, 1 behea
DURANGO
ugatz@hotmail.es
944 668 370 - 615 782 090

Fisioterapia
PSE: 119/13

Zainduz

FISIOTERAPIA OSTEOPATIA

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskuma
MATIENA-ABADIÑO

944 657 132 - 686 906 374

Fisioterapia
PSE: 57/16

pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D
DURANGO

pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

Fisioterapia
PSE: 155/17

HOBETU
Fisioterapia & Podologia

info@hobetu.es
T/ 946 582 444

K/ Buzkantz kalea, 2
P.K./ 48230 Elorrio
www.hobetu.es

Podologia
PSE: 148/13

PAUSOZ PAUSO
PODOLOGIA KLINIKA

GOIATZ MURUA
Podologoa
AINHOA ELORZA
Podologoa
NEREA RODRIGUEZ
Podologoa

Kiropodia, onikopatia,
alteraziodermatologikoak
eta ibilerako alterazioak

Monagotorre, 4 behea DURANGO
946 203 630

Odontologia
PSE: 145/13

clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALITATEAK
08:00etatik 21:00etara ZABALIK

{Muruetatorre, 2C blokea, behea}
DURANGO
Tel.: 946 819 951
Mug.: 717 194 454
uecdental@gmail.com

Odontologia
PSE: 112/13

J.L. URRETA ZABALO
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.
48200 DURANGO
Tel.: 946 812 200

Estetika
PSE: 16/09

AGIRRE KLINIKA
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaestheticadurango.com

Laser berria:
Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitateaz zelulitisa, Laserra: depilazioa
(prezio bereziak), barizeak... Adinaren
kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6
48200 - DURANGO
Tel.: 946 810 387

Psikologia
PSE: 62/11

JON ARRUABARRENA
PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz
Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

Elorriarrek herrigunean egongo den berdegune berri batez gozatzeko aukera izango dute

Elorrioko gazteek eta ate irekietan parte hartutako hainbat herritarrek erabaki dute udaletxe osteko zelaiaren zer egin

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko Udalak jakitera eman duenez, herrigunean berdegune berri batez gozatzeko aukera izango dute 2018an herritarrek. Idoia Buruaga alkateak adierazi duenez, Toloto errekararen berbideraketari esker, udaletxe ostean dagoen lursaila herritarrei zabalduko diete. “Gure ustez, orain da unea berdegune hau egiteko, Tolotoren berbideraketak gune hau zabaltzeko bidea ireki digu”, esan du Buruaga alkateak.

Uda ostean lehen aldiz herritarrei zabalduko dieten zelaiaren gazteentzako jolasgunea, txintxauak, eserlekuak, mahaiak... jarriko dituzte. Horrez gain, txakurrentzat ere gune bat jarriko dutela adierazi dute. “Ate irekiak egin genituen eta herritarrek berdegunean zer gura zuten erabakitzeko aukera izan zuten”, adierazi du alkateak.

Bestalde, 2017an herriko gazteekin egindako diagnostikoan irtendako hainbat proposamenek ere tokia izango dute Buskantz lur-



Udaletxe ostean dago Buskantz lursaila.

sailean. 2019rako, esaterako, skate parke bat egongo dute. “Herriko gazteek hainbat eskari egin zizkiten, eta beraiek lehentasunak ezarri ostean, horiek asetzen ahaleginduko gara”, jarraitu du alkateak.

Horrez gain, zelai horretan bizikletentzako bide bat ere jarriko dute. Elorrio bizikletan ibiltzeko “herri aproposa” dela eta etorkizunean bide hori luzatzeko asmoa dutela plazaratu du Buruagak.

Uda osterako zabalik egongo den guneari ordutegi bat jartzea ez dutela erabaki esan du alkateak. “Zalantzak ditugu parkea egun osoan zabalik egongo den ala ordutegi bat jarriko diogun”, bukatu du.

Jon Barcena gazte berriztarrak 27 egun daramatza desagertuta

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Abenduaren 30etik ez dago Jon Barcena berriztarraren berririk. Gabon zahar bezperan gazte talde bat Gorbeia mendira joan zen, eta igueran txarto sentitu ostean, Barcenak buelta ematea erabaki zuen.

Orduz geroztik, gaztearen bila ibili dira Gorbeian, Urrunagako urtegiaren eta Legutio inguruan, besteak beste. Hala ere, ordutik, ez dago martitzenean 20 urte bete zituen gaztearen arrastorik.

Bestalde, joan zen barikuan Jon Barcenaren familiak gaztearen argazki berri bat zabaltzeko sare sozialetan, eta norbaitek berriztarraren inguruko berririk izanez gero, 112ra deitzeko deia egin zuten.

Atxondoko ludotekak familian jolasteko gune berriagaz hasi du urte berria

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Marixurrike Aisialdi Taldeak kudeatzen duen ludotekan, gune berri batez eman diote hasiera erronka eta ekintzez beteriko urteari. Dagoeneko, astelehenero, 17:30etik 18:30era bitartean, 2 urtera arteko umeek eta beraien gurasoek familian jolasteko aukera dute. “Umeei zein gurasoei lekutxo bat egitea beharrezko ikusten genuen, eta beraz, familian jolasteko gune hau sortzea erabaki genuen”, adierazi du Arantza Rodriguez ludotekako arduradunak.

Bestalde, herriko ume zein gaztetxoentzako ludoteka beharrezko zerbitzua dela jakinarazi du Rodriguezek, eta astelehenero barikura 16:30etik 18:30era dagoela zabalik.

Herritarren %26k hondakin organikoa era sailkatuan jasotzen dute Elorrioren

Edukiontzi marroiak erabiltzeko giltza-sistema ezarri dutela jakitera eman du udalak



‘On Egin’ kanpaina bultzatu du udalak.

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Edukiontzi marroiaren erabilera sustatzeko asmoz, Amankomunazgoak bultzatzen duen ‘On Egin’ programa indartu gura du Elorrioko Udalak. Asteon prentsa ohar bidez jakitera eman dutenez, 1.971 elorriarrek hondakin organikoa era sailkatuan jasotzen dute; 1.446 herritarrek edukiontzi marroia erabili, eta 451k autokonposta.

“Guk geuk eta gure ondorengoen lanean jarraitu behar dugu, denon artean ahalik eta Elorrio

osasuntsuena izateko. Gure baitan hasten da hondakinak ahalik eta modurik eraginkorrean kudeatzeko ardura, eta, bide horretan, badaukagu zer hobetu”, adierazi du Xabier Dominguez zinegotziak.

Udalak jakitera eman duenez, Durangaldeko Amankomunazgoak hondakinak kudeatzen dituen herrietan baino %5 hondakin organiko gehiago kudeatzen dira Elorrioren. “Inguruko herriekin alderatuz datuak onak diren arren, datuak hobetzeko konpromisoa eduki beharko genuke”, adierazi du zinegotziak.

Bestalde, edukiontzi marroiak erabiltzeko, giltza-sistema ezarri dutela jakitera eman dute. Eta hori erabili ahal izateko, izena ematea beharrezkoa dela adierazi dute.

ESKAINNTZA AKADEMIKOA

0 - 18 urtera arte

HAUR HEZKUNTZA • LEHEN HEZKUNTZA

DBH • BATXILERGOA

KURUTZIAGA IKASTOLA

URTARRILAK 27, ATEAK ZABALIK JARDUNALDIA 11:00etan, Herrera Haurtzaindegiko atarian. Puzgarriak egongo dira.
URTARRILETIK, AURREMATRIKULA ZABALIK

Tel. 94 620 08 22 • www.kurutziagaikastola.eus

Kalitatezko euskarazko irakaskuntza

75th

Herririk herri

Ikastolen

ibaizabal

BIZI BERRIA ERAIKIN ZAHARRARI



2016an Kurutziaga eta Ibaizabal ikastolek Ibilaldia antolatu genuenean adierazi genuen helburuetako bat Kurutziagako Haur Hezkuntzako eraikina eraberritzen laguntzea zela. Urte bi geroago, 2018ko urtarrilean zabaldu dugu Haur Hezkuntzako espazio berria, behar pedagogiko berriei erantzunez.

Arkitektura pedagogiaren zerbitzura

Kurutziaga ikastolako eraikin zaharrena zen Haur Hezkuntzako. 1974an eraiki zen J. A. Arechabaleta eta J.M Uriarte arkitektoen gidaritzapean. Eraikinaren diseinua, tankera industrialekoa, aurrerakoa zen garairako, eta eraberritze-

Testuinguru familiarra eskaintzen dugu: umeak eroso eta seguru sentituko diren espazioa.

rakoan errespetatu egin da orduko egitura. Espazio zabalak, argiak eta multifuntzionalak sortzea izan da eraberritze lanok gidatu dituzten arkitektoen helburua (J.A Landia eta ELE Arkitektoak).

Testuinguru atsegina eta segurua

Haur Hezkuntzako bigarren zikloko umeak, hiru eta bost urte bitartekoak, batzen dira Haur Hezkuntzako eraikin eraberrituan. Kurutziagan argi daukagu testuinguru familiarra

eskaini behar diegula, umeak eroso eta seguru sentituko diren espazio bat, familiaren eskuetatik hezitzaileenganako trantsizio atsegina eta lasai baterako guneak sortuz. Umearen segurtasun afektiboa ardatz duen denbora eta espazio antolaketa bermatzea da helburua, bere beharretara moldatua eta afektuzko giroa eskaintzen duena.

Umearen autonomia ardatz Umearen autonomia da garapenaren motorra. Horretarako, umearen mugimendu askea

ahalbidetzen duen espazio zabal eta gardenak sortzea bilatu dugu eraberritze lanekin. Adin ezberdinetako haurrek topo egiteko elkargune bat, eta, aldi berean, hala behar denean, gidaridun ateen bitartez modulatu den espazio multifuntzionala.

Umearen autonomia sustatzen duten espazio zabal eta gardenak sortu ditugu

Jolasa ikasbide

Jolasaren bitartez ikasten du umeak, eta haren bitartez harremanak ingurukoekin. Haur Hezkuntzako eraikinaren eraberritzearekin umeak bizipen eta esperientzia esanguratsuak izango dituen gunea sortu dugu, gure begirada umearenaren neurrian jarrita mundua bestela ikusten delako.



IURRETA • MARKEL ONAINDIA

Duela urte batzuk pentsaezina zirudien irudi bat ikusi ahal izan zen, joan zen domekan, Iurretako Bakixa auzoan: neskak ere Dantzari dantza egiten, mutilekin batera. Herrian, lehenengoko dantza parekidea izan da. Dantzarien belaunaldi berriak tradizioak ezarritako muga bat gainditzea lortu du horrela, eta onena da era naturalean egin duela. Hori bai, ezin ukatu aldaketa gauzatzeko lanean ibili direnentzat une hunkigarria izan zela. “Dantza saioan zehar jendea emozionatuta ikusi genuen; gure irakasle Olatz, adibidez, negarrez egon zen”, gogoratu du Amaia Elizaran 17 urteko dantzari gazteak.

Belaunaldi berriko taldeak lehenengoz egin zuen dantza era ofizialean, eta erronka horrez gainera, generoa kontuan hartu barik plazaratzeko pausoa ere bazegoen tartean. “Nik baneukan presioa, neskak dantza eginda jendeak pentsatuko zuenagatik. Neskoz aparte, Mikel ere urduri egon zen. Baina dantza taldeak ez zuen erabaki nes-

“Dantza saioan zehar jende bat emozionatuta ikusi genuen; gure irakasle bat, adibidez, negarrez egon zen”

Iurretako neskek ere dantzari dantza egin dute era ofizialean lehenengoz, mutilegaz batera, Bakixa auzoko jaietan

kok dantza egitea, baizik eta denok egitea”, dio Elizaranek. Izan ere, generoari begiratu barik ikasi dute dantza egiten, eta era naturalean daramate. “Hiruzpalau urte daramatzagu ikasten, eta denok dena ikasi dugu”, azaldu du Mikel Jaiok, domekan dantza egin zuen 16 urteko mutil bakarrak. Domekako zortziez aparte, beste sei ere badaude talde berrian.

Azkenean, nerbioak eta eragin mediatikoa kenduta, lasai joan zen goiza. “Zaharren batek esan zigun ezustekoa izan zela, baina, bestelakoan, dantzari finak garela esan zigun jendeak”, nabarmendu du Jaiok.

San Migel jaietan herriko plazan dantza egitea izango da normaltasunerako hurrengo erronka gazte hauentzat.



Domekan dantza egin zuen belaunaldi berriaren talde argazkia.



LANGILE ETA LANGABETUEI ZUZENDUTAKO IKASTAROAK

LANBIDE K.	IKASTAROA	ORDUAK	HASIERA
GIZARTE ETA KULTUR ZERBITZUAK			
17482707 / 17482715	Erakundeetan mendeko pertsonentzako jardueren antolamenduan laguntzea (UF0128)	70	2018/01/18
17482708 / 17482716	Higiene- eta elikagai-arretako esku-hartzeak erakundeetan (MF1017_2)	70	2018/02/19
17482709 / 17482717	Arreta soziosanitarioko esku-hartzeak erakundeetan (MF1018_2)	70	2018/03/19
17482710 / 17482718	Mendeko pertsonen animazio soziala erakundeetan (UF0129)	30	2018/04/30
17482711 / 17482719	Erakundeetan dauden mendeko pertsonen eguneroko jarduerak mantentzea eta hobetzea (UF0130)	50	2018/05/14
17482712 / 17482720	Erakundeetan dauden mendeko pertsonekin komunikatzeko teknikak (UF0131)	50	2018/06/04
17482713	Erlazioa, komunikazioa eta behaketa mendeko pertsonarekin eta haren ingurunearekin (UF0124)	80	2018/03/21
FABRIKAZIO MEKANIKOA			
17482701	Sistema mekanikoen muntaketa eta konponketa (UF0456)	70	2018/04/24
17482730	Sistema robotikoen eta ikusmen-sistemen muntaketa eta abiarazteko equipo ondasunetan eta industria-makinetan (ROBOTIKA) (UF0461)	90	2018/04/23
17482704	Txirbil-harroketa bidezko mekanizazio-prozesua (TORNO Y FRESA) (UF0881)	80	2018/01/25
17482705	Txirbil-harroketa bidezko mekanizaziorako CNC programaren egiaztapena eta optimizazioa (UF0882)	70	2018/03/06
17482644	Soldadura karbono-altzairuzko xafia eta profitez estalitako elektrodoekin eta oinarritzko elektrodoekin (UF1624)	90	2018/02/21
17482648	Hodiak fabrikatzeko planoen interpretazioa (AUTOCAD) (UF0494)	50	2018/02/08
17482646	Hodietako garapenen marrazketa (UF0495)	40	2018/03/06
INSTALATZEA ETA MANTENTZEA			
17482729	Linea automatizatuen sistema mekanikoak, pneumatikoak eta hidraulikoak (UF0624)	70	2018/01/22
17482702	Linea automatizatueta funtzionamenduaren programazioa eta kontrola (UF0626)	70	2018/02/22
PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRIAK (LANGABETUAK)			
17482639	Ekipo industrialaren mantentze-lanak eta muntaketa mekanikoa (enpresan praktikak) (IMAQ0108)	510	2018/01/22
17482634	Komunitate-dinamizazioa (enpresan praktikak) (SSCB0109)	490	2018/01/15
17482636	Elektrodo estali bidezko arku elektrikozko soldadurak egitea (MF0099_2)	400	2018/02/05

Informazio eta izen ematea:

www.lanbide.euskadi.eus (Prestakuntza, Kodea)
www.fpzornotza.com (Lanerako formakuntza ikastaroak)

OHARRA: Taldeak sortu ahal, hasiko dira ikastaroak. Beraz, datak orientagarriak dira



Tfnok: 94 403 55 99 / 94 673 02 51
e-maila: ikasi@fpzornotza.com / maranburu@fpzornotza.com

Frontoi azpiko aldagelak gimnasio bihurtuko dituzte

Gela bi egingo dituzte; bat zumba eta antzerako ikastaroetarako, eta bestea gimnasia-makinatarako

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Frontoi azpiko aldagela batzuk kendu eta han sortzen den espazioan gimnasio bat egingo dute aurretan. Aldagela asko daude frontoiaren azpialdean, behar baino gehiago. Beraz, batzuk mantendu eta besteak kendu egin dituzte.

Gimnasioa egitera bideratuta ko espazioa bitan banatuko dute. Gela bat yoga, zumba eta antzerako ikastaroetarako egokituko dute. Beste gelan, ariketak egite-

ko makinak ipiniko dituzte. Lan hauek aurretan burutzeko, 100.000

Gimnasioa egiteko lanak aurretan amaitzea da helburua; bigarren fase batean aldagelak berriztuko dituzte

euroko diru atala gorde dute aurretan. Bigarren fasean aldagelak berriztuko dituzte.

Ermuarako errepidean espaloia egiteko akordioa sinatu dute udalak, URAK-ek eta Bizkaiko Aldundiak

MALLABIA • J.D.

Mallabiko Udalak, Bizkaiko Aldundiak eta URA agentziak akordioa sinatu dute BI-3302 errepideko lanak modu bateratuan egiteko. Nork bere helburuak ditu, eta akordioaren bidez denak batera lizitatuko dituzte. Guztira 1.052.670 euroko inbertsioa eskatuko die.

Aldundiak hainbat lan burutuko ditu errepide berritzeko: espaloia egingo du eta goruneak jarriko ditu, besteak beste. Lan guztiek 960.545 euroko kostua du-

te. Espaloia egiteko lanak aprobe-txatuz, Uraren Euskal Agentziak Mallabiko saneamendu-kolektorean beste tarte bat egingo du zati horretan. Obra horien zenbatekoa 92.124 euro da.

Mallabiko ur zikinak Debabarreneko kolektoreen bidez Elgoibarreraino eramateko beharrezkoak diren obren bigarren fasea izango da. Aurrenekoan Urtia industrialderainokoa egin zuten. Lanak amaitzeko aurreikusitako epea urtebetekoa da.



Harek denporak!

Mañariko plazako 'eskeletoa' eraitsi zuten 2002an

2002ko martxoaren 26an, 13:00etan, eztanda entzuzen Mañaritan. Baina, kasu honetan, dinamita harrobietan beharrean, plazan hamar urtez amaitu barik zegoen eraikinaren hormigoizko egitura jarri zuten. Izan ere, egitura hori dinamitz lehertu zuten eguerdian, 13:00etan. Horrela, herriko udaletxea izateko eraiki zuten egitura eraitea erabaki

zuten. Hamabost urtez, hormigoizko 'eskeletoa' norik osatuko zuten zain egon zen. Askok eta askok gogoratuko dute sasoi batean Mañariko jaietan txosnen aterpe izan zela eraikina. Eraiketaren egunean mañaritar ugari batu ziren plazan, zahar zein gazte. ANBOTO astekariak Martin Egia argazkilariak ateratako argazkia kaleratu zuen bere 15. alean. J.G.

Sei hankako mahaia

Julian Rios
Santiago
SQ-2D



Elkarrekin egoteko guneak

Ia lau urte igaro dira Durangaldean agertu ginenetik. Lau urte eraginkor eta bizi izan dira, instituzioak herritarrei zabaltzeko ahaleginean. Une batez, herritarrek nahikoa zela esan zuten, ez zeudela prest lau urtero txeke zuri bat emateko. Herriaren bizitza publikoan eta politikan parte hartzea eta erabakiak hartzea nahi dugu. Ez gure partez politika egin dezaten.

Gure alderdia herritarrei zabalik dago, durangarren bozgorailu izateko instituzioetan, hango ate-leihoak irekitzeko. Informazio dena denen eskura egon dadin.

Bariku honetan beste pauso bat emango dugu. Elkarrekin egoteko gune berri bat inauguratuko dugu, formakuntzarako, eztabaidarako zein herritarren ahalduntzerako. Gune hori herritarren eskura jarriko dugu, elkarte eta mugimendu sozialen eskura. Gune horiek ezinbesteko ditugu gure ahalduntzerako, eta erantzukizunak, gardentasuna eta gobernuaren jarduera ona exijitzeko. Gune horretan kontuak eskatuko ditugu, gure proposamenak plazaratuko dizkiegu kargu politikoei. Azken batean, politika berri bat eraikitzeko gunea izango da, pertsonak direlarik politika horren ardatz, eta ez inoren interesak. Antonio Machadok zioen bezala: "Egin ezazue politika, zuek egiten ez baduzue, inork egingo du-eta zuen orde, eta agian zuen kontra". Zatozte denok barikuan inauguraziora, Goienkale 13ra, 18:30ean.

*Erredakzioan itzulita

Durangaldea asteen

Sahararentzako elikagai eta produktuak batzeko karabana solidarioa abiatu dute

Durangaldea | Asteburu honetan eta hurrengoan Abadiñoko Eroskin egongo dira Rio de Oroko kideak, Tindufeko errefuxiatuen kanpamentuetara bidaltzeko elikagaiak batzen eta herritarrek informatzen. Bertan zein Durangoko Alde Zaharreko Eroskin utzi daitezke elikagaiak. Arroza, pasta, lekaleak, azukrea, hegaluza oliotan eta sardinak oliotan eman daitezke. Elikagai horiez gainera, konpresak ere jasoko dituzte.

Ingurumen arloko lanagatik Udalsarea 21eko saria irabazi du Durangoko Udalak

Durango | Udalsarea 21ek 2017ko sari banaketa egin du, eta "parte-hartze publikoa eta gardentasuna sustatzeagatik" aipamen berezia egin dio Durangori. Gasteiz izan da udalerrri jasangarriaren sari nagusia eskuratu duena, eta Amurriok, Legazpiak eta Tolosak ere jaso dute Durangoko aipamen bera.

Etorkizuneko irakasleek proiektu lez antzezlanak taularatuko dituzte

Durango | Ibaizabal ikastolako Haur Hezkuntzako lehenengo mailako irakasleek beraien arloan egoera erreal baten inguruan proiektua garatu dute. Antzezlan bat hasieratik amaierara sortu eta taularatzea da asmoa. Guztira, lau antzezlan taularatuko dituzte Plateruena kafe antzokian, datorren martitzenean eta eguenean, 17:00etan eta 17:30ean.

Iritzia

BANDEROLAK UDALETXEKO BALKOIAN?

2015eko urtarrilaren 28an mundu osoko kameraren arreta bereganatu zuen gertakari bat ekarri nahi izan du gogora Durangoko Udalak aste honetan, urteurrenaren harira. Non eta Ekialde Hurbilaren bihotzean, lehen zibilizazioak jaio ziren eskualdean, emakumeak buru izandako YPJ miliziek, gerora DAESH-en gainbeheraren hasiera ekarriko zuten lorpena egin zuten: Kobane hiria askatzea.

Durangarrok baditugu bonbek utziriko aztarnak eta badakiugu haiek sortzen duten sufrimendua aintzat hartzen. Bide hori jorratu zen iazko martxoan eginiko Kobane-Bartzelona-Durango ekimenean, Kobane herriarekin senidetza hitzarmena gauzatu zenean. Udal plenoak onarturiko testuak dio, durangarrok gatazkaren konponbide justu, baketsu eta iraunkorra helburu duten ekimenei sostengua emango geniola, baita Rojava eta Iparraldeko Siriako Sistema Demokratiko Federalari babes eskaini ere.

Urtebete baino lehen iritsi da hitzarmenari men egiteko momentua. DAESH lurraldetik kanporatua izaten ari den egunotan, Turkiako estatuak hartu du erreleboa, eta bonbardaketa basatiak burutzeari ekin dio, kurduak, kristauak, arabiarrek eta beste hainbat etnia bizi diren Afrin-eko eremuan, terroristak kanporatu nahi izatea aitzakiatzat hartuta.

Kobane askatu zuteneko hirugarren urteurrena gogoratzeko, YPG eta YPJ milizien ikurrak daude eskegita udaletxeko balkoian egun hauetan. Memoria egiteaz gain, balio beza keinuak Turkiaren kurduen aurkako gurutzada eta zibilen kontrako bonbardaketa gaitzesteko.

Mikel Gandarias Jaio, Suargi Elkartearen izenean

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:
Bixente Kapanaga 9 - IURRETA · Izen-abizenak · telefonoa · helbidea · Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

IURRETAKO HEZKUNTZA eremua

Olaburu auzunea, IURRETA

— MATRIKULA EPEA —
urtarrilaren 29tik, otsailaren 9ra

- Gune egokia.
- Jantokia eta garraioa.
- Irakasle euskaldunak, finkoak eta esperientziadunak.
- Zuen seme-alabek euskaraz egin ditzakete unibertsitate aurreko ikasketa guztiak lurretan.

MAIZTEGI
946 810 937



OROBIOGOITIA
946 810 461



2-12 urte
MAIZTEGI
HH eta LH



12-18 urte
OROBIOGOITIA DBH eta
Batxilergoa

PEDAGOGIA ERALDATZAILEAN 6. MAILAN

Aurten, Zornotzako Andramari Ikastolak, EKI proiektuarekin jarraituz, erronka berri bati egiten dio aurre, Lehen Hezkuntzako 6. mailan hezkuntza-sistema berritzailea inplementatzen ari da. Azkenengo lau urteetan DBHko zenbait mailatan ezarri dute proiektua eta “agerikoa da ikasgeletan izan den eraldaketa”, azaldu zuen Bittor Camarak, zuzendari pedagogikoak.

EKI proiektua Ikaselkarrek, Ikastolen Elkarteak eta Elkar argitaletxeak osatutako taldeak garatutako hezkuntza programa da. European

aitzindaria den proiektu honek kompetentzien garapenean oinarritzen du bere hezkuntza eredua, eta ez dugu pilaketetan. Egitasmoaren abiapuntua euskal curriculumean ezarri zen, ikuspuntu metodologikotik integrazioaren pedagogia erabiltzea erabaki zen eta hortik formulatu zen kompetentzien gainean oinarritutako hezkuntza.

“Orain dela lau urte aurrerapauso ikaragarria eman genuen. Ikasleak modu desberdin batean ikasten hasi ziren eta irakasleak era desberdinean

erakusten”, azaldu zuen Abel Ariznabarretak, Ikastolen Elkarteko Hezkuntza arduradunak. Proiektuaren xedea, kompetentzia eta pedagogia integratzaileak garatzean, ikasleek bizitzan zehar aurki ditzaketen egoerei aurre egiteko trebetasunak eskuratzean datza.

Horregatik, Lehen Hezkuntzako 6. mailan esperimentatzen ari dira dagoeneko hainbat ikastolatan, eta Andramari Zornotzako Ikastola horien artean dago. Etorkizunean, Lehen Hezkuntzako beste mailatan ere izango du garapena.



ANDRAMARI
ZORNOTZAKO IKASTOLA

Andramari Zornotzako Ikastola

“Biharko Euskaldun prestatu eta arduratsuak hezten”

0-18 urtera arte

Matrikula zabalik:

Urtarrilaren 29tik otsailaren 9rarte (biak barne)

Euskal hezkuntza eredu berritzailea, hurbilekoa eta konprometitua.

Bertoko ekoizleen produktu eta sasoikoez hornitutako jantoki zerbitzua.

Bus: Usansolo, Igorre, Lemoa eta Zornotza.

Bisita gidatuak eta informazio gehiago:
www.zornotzaikastola.eus

94.673.29.50 • zornotza@ikastola.eus



SAN BLAS JAIAK



*Abadiñoko Udalak San Blas
jai zorientsuak opa deutsuez*

www.abadiño.org



Abadiño

Elizateko Udala

Nekazari eta artisauen 150 postu inguru jarriko dituzte San Blas azokan

Otsailaren 3rako hainbat ekintza antolatu dituzte Abadiñon; goizean zehar txistularien kalejira eta bertsolariak egongo dira; arratsaldean, berriz, Lotxo taldearen erromeria

AZOKA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Ohi bezala, auzo guztian zehar zabalduko da otsailaren 3an, San Blas azokaren egunean, jai-giroa Abadiñon. Zelaietan abeltzaintza eta artisautza azokaren 150 postu inguru jarriko dituzte Abadiñoako Udalak eta Kutxabankek. Gainera, urtero bezala, egun-pasan doazenei jan-edana eskaintzeko txosnagunea eta bestelako produktuak saltzeko tokia ere atonduko dituzte.

San Blas azokara euren ortu eta sukaldeetako produkturik onenak eta abelbururik zainduenak ekarriko dituzte inguruko herrietako nekazari eta abeltzainek.

Horrez gain, datorren zapatuan azokara bertaratzen direnek ganadu, baserri-tresneria, burdindieria, ortuariak, landareak, fruta, gaztaia, txakolina, ogia eta eztaia aurkituko dituzte, eta baita artisauek egindako lanak ere.

San Blas egunari Txanbolin taldeko txistulariek emango diote hasiera. Euren kalejiragaz herria esnatzen dutenerako, azokan parte hartzen duten abeltzainek prest izango dute euren ganadua.

Hainbat ekintzaz gozatzeko aukera izango da Abadiñon egun guztian zehar. Esaterako, goizean zehar, XXVI. abelburu erakusketa egingo dute.

Bestalde, 11:00etan, meza nagusia egongo da San Trokaz elizan. Eta, urtero bezala, bertsolariak saioa eskainiko dute Ferialekuan, 12:00etan. Txaber Altubek, Aitor Bizkarrak eta Garikoitz Sarriugar tek kantatuko dute. Herri kirol zaleek, berriz, probalekuan izango dute hitzordua, han urrezko aizkolari txapelketako saioak egongo dira eta.

Arratsaldean, 17:00etan hasita, idi probak eta Lotxo taldearen erromeria egongo dira.

San Blas egunari DJ Miauk emango dio amaiera, txosnagunean 22:00etan eskainiko duen ekitaldiagaz.



9:00etan irekiko ditu ateak azokak.



Eskualdeko nekazari, artisau eta abeltzainak batuko ditu San Blas azokak

San

Otsailak 2 barikua

19:00 San Blas 2018 Pilota Txapelketa, Tornosolo trinketean.

19:00 Garagardo dastaketa Garai Brewing Companyren eskutik txosnagunean.

20:30 Hanburgesa jana txosnagunean.

Otsailak 3, zapatua

AZOKA:

Ganadua, baserri-tresneria, burdineria, ortuariak, frutak, gaztaia, txakolina, ogia, eztaia, artisautza eta landarak.

XXVI. Abelburu erakusketa.

9:00 Txanbolin taldeko **txistularien kalejira.**

11:00 Meza nagusia San Trokaz elizan.

12:00 Bertsolariak Ferialeku plazan:

Txaber Altube, Aitor Bizkarra eta Garikoitz Sarriugarte.

12:00 Herri kirolak probalekuan:

- XVIII. Urrezko aizkolari binakako txapelketa: Aitzol Atutxa II - Julen Alberdi Txikia IV / Ugaitz Mugertza II - Joseba Otaegi
- Urrezko aizkolari emakume banakako

I. Txapelketa:

Irati Astondoa - Alazne Etxaburua.

neumáticos
ETXEBARRIA

Olio aldaketa - Pneumatikoak (marka guztiak) - Balazta-pastillak - Motelgailuak

Uribitarte Industr. 6 48220 MATIENA-ABADIÑO
(Hiper Eroskiren ondoan)
Tel.: 946 232 520 - Faxa: 946 203 622
www.neumaticosetxebarría.com



DIBA
KOOPERATIBA

Durangaldeko Baserritarren Elkarte

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

SERRATU S.L.

Ondo pasa San Blasetan!
Galdaragintza eta itxierak
Enpreetan mantentze-lanak

Astola, 48 ABADIÑO - Tel.: 946 201 837
serratu@serratu.com - www.serratu.com



Blas jaiak 2018

12:00 Herri kirolak probalekuan:

- XVIII. Urrezko aizkolari binakako txapelketa: Aitzol Atutxa II - Julen Alberdi Txikia IV / Ugaitz Mugertza II - Joseba Otaegi
- Urrezko aizkolari emakume banakako I. Txapelketa: Irati Astondoa - Alazne Etxaburua.

17:00 Erromeria Ferialeku plazan: Lotxo taldea

17:00 Idi-probak.

22:00 Idi-probak.

22:00 Kontzertua txosnagunean:
Dj Miao

Otsailak 4, domeka

12:00 Abadiñoko Done Zezili abesbatzak Santa Agedaren koplak abestuko ditu kalerik kale.

13:00 Txixiburduntzi Zelaietako eskoletan

17:00 Umeendako antzerkia Txanporta Kultur Etxean: Murren bidaia (Behibi santzerki taldea). 3-6 urte. Sarrerak urtarrilaren 29tik eskuragarri Udal Mediatekan.

18:00 Idi-probak



Erroskilla egileen eta San Blasetako kordelen 21 postu egongo dira Zelaietan

Irati Astondoa eta Alazne Etxaburua urrezko aizkoragatik lehiatuko dira

Emakumeen banakako Urrezko Aizkora txapelketa jokatu da Abadiñon, lehenbizikoz; gizonen kasuan, otera, XVIII. txapelketa izango da aurtengoa, eta binaka jokatu dute.

HERRI KIROLAK • A. M.

Alazne Etxaburua tolosarra eta Irati Astondoa zeanuritarra elkarren aurka lehiatuko dira beste behin. Biek ala biek hamaika alditan egin dute topo lehietan azken urteetan; adibidez, Etxaburuak eta Astondoak emakumeen arteko lehenbiziko apustua egin zuten aizkoragaz eta segagaz; izan ere, sega da bien jatorrizko espezialitatea. Etxaburua izan zen garaile lehia horretan.

Gizonen kasuan, binakako Eusko Label txapelketarako puntuagarria izango da San Blasetako txapelke-

ta hau. Aitzol Atutxa II.a eta Julen Alberdi Txikia IV.ena azkoitiarrak osatzen duten bikotea Ugaitz Mugertza II.ak eta Joseba Otaegik osatzen dutenaren aurka lehiatuko dira. 12:00etan hasiko da lehia, probalekuan. Hogeita lau enbor ebaki beharko dituzte kanporaketan.

Harri-jasotze erakustaldia

Harri-jasotzaileak ikusteko aukera ere egongo da, urtero legez. Goenatxo III.ak erakustaldia egingo du 175 kiloko harri errektangularragaz eta 150 kiloko harri borobilagaz.

Atutxa II.a-Txikia IV.a bikotea Mugertza II.a-Otaegi bikotearen aurka lehiatuko da puntuagarria den saioan

Goenatxo III.enak ikuskizuna eskainiko du 175 kg-ko harri errektangularragaz eta 150kg-ko borobilagaz



Hogeita lau enbor ebaki beharko dituzte.



ZAINDU HAGIN KLINIKA
Odontologia orokorra eta espezialitateak

Umeentzako odontologia • Ortodontzia (P.A.D.I. programa)
Implanteak • Periodontzia • Aho-estetika • Protesiak • etab.

Mari Tere Zamalloa Juaristi
Periodontzian espezializatua • Col.1005

Ferialeku, 1 • Abadiño
Tel.: 94 465 73 42

ABADIÑOKO BATZOKIA

Ondo pasa San Blasetan!



Ferialeku plaza, 3 | Tel.: 636 918 937

SOLOA
JATETXEA



Ondo pasa jaietan!

Mena berezia San Blas jaietan
Txanporta, 1 - Abadiño (Bizkaia)
Tel.: 946 202 504 - 946 200 134
www.soloajatetxea.com

Gisasola
Pentsuak
- EKO GARDEN -



Ortuko landareak urte guztian

Trañabarren, 27 - Matiena-Abadiño
Tel.: 946 816 687
gisasola.p@gmail.com

zure produktutik haratago begiratzen

di:da
zure balioen marka

Goi mailako pilotariak batuko ditu Tornosolo trinketeko jaialdi nagusiak

Asier Aspuru abadiñarrak Waltarygaz osatuko du bikotea. Aurrez aurre GRAVN txapelketako irabazleak izango dituzte: Inhar Ugarte eta Ekhi Ziarrusta

TRINKETA • JOSEBA DERTEANO

San Blas jaien harira Tornosolo trinketean antolatuko duten jaialdi nagusiak goi mailako bikote bi elkarren kontra jarraiko ditu. Asier Aspuru pilotari abadiñarra izango da protagonistetako bat. Hasieran Yves Salaberri *Xalagaz* jokatzeko aurreikusita zegoen, horrela jasotzen baitzuen jaietako programak, baina *Xala* ezin izango da etorri eta, bere ordez, Waltary Agusti pilotaria ekarriko dute.

Waltary hainbat urtez erreferenteetako bat izan da trinketean.

“Pena da *Xala* ez etortzea, baina Waltarygaz jokatzeko ere ilusio itzela egiten dit. Mikel Gonzalez kenduta, Ipar Euskal Herrian goian dabilen pilotari batez etxean jokatzeko dudaren lehenengo aldia izango da. Urteetan onena izan da Waltary”, adierazi du Aspuru.

Ekhi Ziarrusta eta Inhar Ugarte izango dituzte aurkari. “Bikote gogorra dira. GRAVN txapelketa irabazi dute eta abendu amaieran Ipar Euskal Herriko bikote bati egurra eman zioten Tornosolon. Gaur egun Hego Euskal Herrian parean aurkitu

zenezakeen bikoterik onenetakoa da, onena ez bada. Gauzak ondo egin beharko ditugu irabazteko”, us-te du Aspuru.

Partidu hori otsailaren 9an, 18:00etan, hasiko den jaialdiko azken izango da. Aurretik nesken paleta gomako partidua eta San Blas txapelketako binakako finala jokatuko dituzte.

Aspuru Bizkaiko binakako trinkete txapelketa jokatzeko ere badabil Aitor Arabiourrutiagaz. Hurrengo partidua derrigor irabazi behar dute finalerdietara sailkatzeko.



Aspuru eta Waltaryk elkarregaz jokatuko dute.



Inhar Ugartek (irudian) Ekhi Ziarrustagaz jokatuko du.

San

Otsailak 9, barikua

18:00 San Blas 2018 Pilota Txapelketa, Tornosolo trinketean:

Nesken gomazko paleta partida (lagunartekoa)

Txapelketako eskuz binakako finala

Desafioa: Waltary - Aspuru / Ziarrusta - Ugarte

21:30 Idi-probak .

Otsailak 10, Zapatua

22:00 Idi-probak.

Otsailak 11, domeka

11:00 Eskola arteko krosa (Bizkaiko txapelketa) Astola auzoan.

18:00 Idi-probak.

Otsailak 12, astelehena

21:30 Idi-probak. Ondoren, sari banaketa.

Otsailak 17, zapatua

10:00 XXX. Burduntziko bildots txapelketa. Txakoli erakusketa.

UNISEX
GURE AMETSA
UNISEX
ILE-APAINDEGIA
.....
Iturritxo, 2A behea
ABADIÑO
(ESTANKO BERRIAREN ONDOAN)
Tel.: 697 313 436
65 urtetik gorakoentzat
DESKONTUAK

Beristain
NEKAZAL TRESNAK
OIDOR
BERRIOZABALBEITIA, 14
48230 ELORRIO
946 231 803
info@beristain.eus
www.beristain.eus

MUEBLES DE COCINA Y HOGAR
ARRIANDI
SUKALDE ETA ETXEO ALTZARIAK
Polígono Urbitarte, 6 - Local 3 - 48220 Abadiño
Tel.: 94 620 26 56 - abadiano@arriandi.com

B FUNERARIA BASAGUREN
DURANGALDEKO ERRAUSKETA-LABE BAKARRA
ARRETA ASEGURU-ETXE GUZTIEI
BEILATOKIA - ERRAUSKETA LABEA DURANGO Aliendalde Ind. 8H eta 8J
BULEGOA ELORRIO Ibaikua kalea, 6
www.funerariabasaguren.com
24 orduko zerbitzua: 94 681 09 95 - 94 681 13 47

Blas jaiak 2018

14:00 Bildots bazkaria probalekuan.

OHARRA

Otsailaren 16tik martiaren 2ra, San Blas 2018

argazki lehiaketako erakusketa Errota

Kultur Etxean.

ORDUTEGIA: Astegunetan: 09:00-20:00

Larunbatetan: 10:00-14:00

Laski, iazko bikote txapelduna, otsailaren 4an lehiatuko da

Sei saio egongo dira, otsailaren 2an hasi eta otsailaren 12ra arte; saio bakoitza erakargarri egiteko asmoz, bikote multzo buru bana izango dute saioek



Jarraitzaile fidelak ditu San Blas txapelketa.

Hogeita bost bikotek eman dute izena 2018ko San Blas txapelketa lehiatzeko. Aurten ere, bikote bizkaitarrak gehiago izango dira; hamalau idi bikote bertakoak dira. Laski, Goioeta eta Kamiñoko jaretxea, iazko bikote faboritoak ere lehiatuko dira. Jose Antonio Odrizola ibili da txapelketa antolatze-

Otsailaren 11ko saioan lau idi bikote arituko dira nor baino nor gehiago; bi multzoburuak dira

ko lanetan eta, bere berbetan, idi gutxiago dagoelako gutxitu da txapelketa parte-hartzea. Hala

ere, saioak erakargarriak izango direla uste du. "Iaz jende asko ibili zen, eta aurten ere horrela izango dela uste dugu", esan du. Horretarako, multzo buru bana jarri dute saioetan. "Iaz ere horrela egin genuen", gogoratu du. Salbuespena otsailaren 11ko saioa izango da: bertan bik egingo dute tira.



Jai-giroa izaten da nagusi Abadiñon otsailaren 3an.



Zatoz San Blas egunean gurera!

Ogitartekoak
Hamarretakoak
Menuak
Pintxoak

Giro euskaldun eta atsegina egun osoan!

ABARKETERUENA

Iturritxo kalea, 6 · Txanporta plaza
48220 ABADIÑO
Tel.: 944 657 790



Azkonizaga

Ortuzar, 1 · Izurtza (Bizkaia) · Tel./Faxa: 946 810 652
azkonizaga@azkonizaga.com
www.azkonizaga.com



ERLIA
CONTENEDORES

www.contenedoreserlia.com



- Geure hondakindegia dugu.
- Harrobietako materialen banaketa.
- Obra-hondakinak eta industriako hondakinak kentzen ditugu.
- Industriako eta obretako hondakin inerteen kudeaketa.

Astola auzoa, 68 · 48220 ABADIÑO
Tel.: 646 247 350 / 946 814 107 · Faxa: 946 810 204

elebe

ileapaindegia

SOLARIUM BERTIKALA
MASAJE LASAIGARRIA
ILE-APAINDEGIA
ESTETIZISTA

Iturritxo, 2 behe
· ABADIÑO ·
Tel.: 946 550 105

MOTOS TABIRA

KONTZESIONARIO OFIZIALA
Salmenta · Konponketa · Boutiquea



DOAKO ASEGURUA
ITZULI DA KEWAY
125CC GUZTIETARAKO



Tel./Faxa: 94 681 40 68
motostabira@outlook.es
www.motostabira.es

Arzubia ind., 10-B pab. - 48220 MATIENA-ABADIÑO



IURRETA

**Tellitu-n
hurrengo
eraikuntza**

3 logelatako
6 etxebizitza

2 logelatako
11 etxebizitza

Garajea eta
trastelekua barne

**Etorri
ikustera!**

DURANGO
KAFE ANTZOKIA - MONTEVIDEO

**Etorri ikustera geratzen diren
2 etxebizitzak!**

Durango herrigunean

*Energia eraginkortasun
handiko etxebizitzak*

Hiriko txaletak

Oiz mendira begiratokiak

Leku zabalak



ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Kontsultatu beste aukerak

Tel.: 946 816 673
www.zarateyelexpe.com



Doinuzahar abesbatzaren 35. urteurrena

MUSIKA | Kontzertu berezia pres-tatu du Durangoko Doinuzahar kamera abesbatzak biharko. Emanaldia urtarrilaren 27an izango da, Santa Ana elizan, 20:15ean. Abesbatza 1982an sortu zen. Iaztik, Laura Nardi musika irakaslea da zuzendaria.

Urtarrilaren 26an

ZALDIBAR antzerkia
'Boli bili boli' antzezlana, 17:30ean, Udal liburuegian.

DURANGO hitzaldia
'Mantener la calma en un mundo de tensiones' hitzaldia Teresa Alonso psikologoaren eskutik, 19:00etan, Bizenta Mogel bibliotekan.

DURANGO hitzaldia
'Lurretik landareak, landareak lantzetik gu jantzi' hitzaldia Jakoba Errekondoren eskutik, 19:00etan, Arte eta Historia museon.

BERRIZ antzerkia
Glu glu konpainiaren 'Alizia lurralde miresgarrian', 18:15ean, Kultur Etxean.

ELORRIO hitzaldia
Bertso afaria, 21:30ean, gaztetxean.

ZORNOTZA antzerkia
'Ele! Lorca-Lauaxeta', 20:15ean, Zornotza aretoan.

Urtarrilaren 27an



Elkarrekin Together pelikula emango dute Arriolan, 18:30ean. Ostean, solasaldia Angel Oiarbidegaz.

ABADIÑO argazkigintza Gazteentzako argazkigintza tailerra Katalamixon elkarteak antolatuta, 15:30ean hasiata.

DURANGO ipuin kontaketa 'A ze komeriak!' umeentzako ipuin kontaketa Idoia Sanchezen eskutik, 12:00etan (3-5 urte bitartekoentzat), eta 12:30ean 6 urtekoentzat, Bizenta Mogel bibliotekan.

BERRIZ antzerkia Tanttakaren 'Soka' antzezlana, 20:00etan, Kultur Etxean.

ELORRIO emanaldia 'Elkarrekin-Together' pelikula, eta ostean Angel Oiarbidegaz solasaldia, 18:30ean, Arriolan.

DURANGO jaialdia 'Garajetik' jaialdian Etsipen, Ikarass eta The Van taldeen kontzertuak. Ostean, Gora Etorrigaz festa, 21:00etan, Sorginola gaztetxean.

OTXANDIO musika Txapito Guzman eta Ibarako Langostinuek taldearen kontzertua, 23:00etan, gaztetxean.

Urtarrilaren 28an

DURANGO emanaldia 'Amama' pelikularen proiektzioa, Berdeago Nature azokaren baitan, 18:00etan, Plateruenean.

ELORRIO hitzaldia Errepresioaren inguruko eztabaida, 17:00etan, gaztetxean.

DURANGO antzerkia 'Alicia después de Alicia' antzezlana, 19:00etan, San Agustin kulturgunean.

Urtarrilak 29 eta otsailak 5

IURRETA ikastaroa 'Dislexia. Ikasteko zailtasunak. Eskola-Porrota' tailerra guraso eta profesionalentzat, Dislebiren bitartez, 18:00-20:00 bitartean, Ibarretxe kultur etxean.

Otsailaren 2an

DURANGO musika Holy Bouncer eta Meridian taldeen kontzertua, 21:30ean, Plateruenean.

Otsailaren 3an

ZORNOTZA antzerkia 'Linbo planetan' antzezlana, 18:00etan, Zornotza aretoan.

DURANGO musika Mecano Sing-Along, 21:00etan, Plateruenean.

Urtarrilaren 10etik 31ra

Urtarrileko agenda



26 **"IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA"**
Bularretik mintzora
17:00 Haur Hezkuntzako 3, 4 eta 5 urteko gelakoak
18:00 Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailak
20:00 Helduentzako ipuin kontalaria "Juan Ganba"

30 **"IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA"**
18:30 Ingelesezko irakurketa kluba

31 **"IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA"**
10:00 XL Irakurketa kluba
Azalerako ipuinak
17:00 0-18 hilabete
18:00 18-36 hilabete
18:30 Irakur lagunak

ZALDIBAR EUSKALDUNA GURA DUZU? EGINGO DUGU?
KIKE AMONARRIZEN HITZALDIA
URTARRILAREN 31n, EGUAZTENA
URRUTITOLERAKARRIEN 18:30an

Kike Amonarrizek hitzaldia emango du urtarrilaren 31n, 18:30ean, Zaldibarko Udal Liburutegian.

ELORRIO erakusketa 'Tanger Dream' Txelu Angoitiaren argazkiekin, Iturri kultur etxean.

Urtarrilaren 15etik otsailaren 9ra

ZORNOTZA deialdia Emakume Nekazari eta Artisauen XXI. Azokan parte hartzeko izen-emate epea zabalik, Eskariak Gizarte Ekintza Sailean aurkeztu beharko dira, 08:30etik 14:30era (Nafarroa Zentroko 1. solairua) edota posta elektronikoz bidez berdintasuna@amorebieta.net helbidean.

Zine-ma

:: Berriz KULTUR ETXEA

Que baje Dios y lo vea
barikua, 26: 22:00
domoka, 28: 19:00

:: Durango ZUGAZA

• **Tres anuncios en las afueras**
barikua, 26: 19:30/22:00
zapatua, 27: 19:30/22:30
domoka, 28: 18:45/21:15
astelehena, 29: 18:30/21:30
martitzena, 30: 20:00
eguztzena, 31: 20:00

• **El corredor del laberinto. La cura mortal**
barikua, 26: 19:00/22:00
zapatua, 27: 16:45/19:30/22:30
domoka, 28: 17:00/20:00
astelehena, 29: 18:00/21:00
martitzena, 30: 20:00
eguztzena, 31: 20:00

• **Los archivos del Pentágono**
barikua, 26: 19:30/22:00
zapatua, 27: 19:30/22:30
domoka, 28: 18:45/21:15
astelehena, 29: 18:00/21:00
martitzena, 30: 20:00
eguztzena, 31: 20:00

:: Elorrio ARRIOLA

• **The disaster artist**
barikua, 26: 22:00
domoka, 28: 20:00
astelehena, 29: 20:00

:: Zornotza ARETOA

• **Los archivos del Pentágono**
zapatua, 27: 19:30/22:30
domoka, 28: 20:00
astelehena, 29: 20:15

IRAKURKETA • ARITZ MALDONADO

Iurretako Herri Bibliotekan hamar bat lagun biltzen dira eguaztenero, mahai baten bueltan jarri, irakurri, eta ostean giro lasaian elkarregaz gogoeta egiteko. Aste honetako saioan M. Del Angels Selles i Pons idazlearen *De Chamartín a Collbató* irakurtzen ari dira Mari Carmen Abasolo, Juli Lobato, Angelita Arana, Meli Gonzalez eta M. Begoña Zugazartaza; gaurkoan ezin izan dira batu M. Pilar Mintegia eta Esther Usubiaga. Hirugarren urtea dute astean behin ordubetez batu, elkarregaz irakurri, ideak trukatu eta literaturak daramatzan munduetatik bidaiatzen. Gehienek lehenik elkar ezagutzen zuten arren, harremana estutu egin dute bertan, eta, hori dela-eta, dei egin dute jende berria joateko. “Guretzat bigarren gaztaro moduko bat da hau”, nabarmendu du Lobatok. Lectura Facil Euskadi elkarteko kideak arduratzen dira saioak dinamizatzeaz. Saio honetan Sara Morenok lagun duen arren, Blanca Matagaz egon ohi dira iurretarrak; beraien arduratzen dira irakurri beharreko liburuak aukeratzeaz. “Denetarik irakurri dugu orain arte, nobela historikoa, maitasunezkoak eta abar”, azaldu du Morenok. Besteak beste, *Diario de Anna Frank* eta *El Agua del Rif* irakurri dituzte. Liburu bakoitzari bost saio eskaintzen dizkiote, eta irakurtzeaz gain, liburuak gaigaz zerikusia duten bideoak eta argazkiak ikusten dituzte.

Hiru bat urtean liburu asko irakurtzeko aukera izan dute

Eguaztenero zita lurretan, 55 urtetik gorakoengan irakurzaletasuna sustatzeko

Hiru urte inguru daramatzate lurretako XL klubeko kideek eguaztenero batzen, liburu bat irakurri eta honek sortzen dizkien hausnarketei eta oroitzapenei buruz berbetako; eskualdean antzerako esperientzia gehiago daude



XL irakurle taldeko kideak.

klubeko kideek, eta, orain, lehen baino errazagoa zaie antolatzaileei irakurri beharreko liburuak aukeratzea. “Orain gehiago ezagutzen ditugu, euren gustuak ezagutzen ditugu, eta horrela errazagoa egiten zaigu liburuak aukeratzea”, azaldu du Sara Moreno Lectura Facileko kudeatzaileak.

XL deritzon irakurketa errazeko talde honetan parte hartzen duten lagunek hainbat arrazoi izan dituzte bertara etortzeko.

Batzuei orain piztu zaie irakurketarako grina. Meli Gonzalezi, ostera, aspalditik datorkio zaletasuna. “Nik lehen ere hartzen nuen parte horrelako talde batean, eta, egia esateko, hona etorri aurretik haren falta sumatzen nuen”, esan du. Abasolok ere aspaldian alboratua zuen zaletasunari ekiten aitzakia topatu du klubean. Liburu eta solasaldi artean, elkarren arteko harremana estutu dute iurretarek. “Liburuekin gogoetak eta oroitzapenak piz-

tu zaizkigu urteotan, eta horiek partekatzerakoan, harremanak sendotu egin dira”, azaldu du Aranak. “Ezberdin pentsatzen dugu, eta horrek eztabaidak aberasten ditu”, dio Zugazartazak.

Irakurzaletasuna bultzatzen

Lectura Facil Euskadi elkarteko kideek ez dute lurretako talde honeguz bakarrik lan egiten. Ibarretxan bertan, dislexiaren ondorioz ikasteko zailtasunak dituztenentzat tailerra eskainiko dute

urtarrilaren 29an eta otsailaren 5ean. Horrez gainera, Durangon Gorabide, Aita Meni, Lantegi Batua eta Avifeseko lagunekin ere sustatzen dituzte irakurketa taldeak.

Aukera baliatuta, XL taldeko kideek eskerrak eman gura izan dizkiete Ibarretxeko langileei irakurketa errazeko taldea antolatzearen. “Gauza piloa antolatzen dituzte, eta hori itzela da iurretarentzat”, nabarmendu dute guztiek aho batez.

Eskualdeko musika taldeak Sorginolan saretzeko apustuagaz jarraitzen du Tronpak

‘Garajetik’ jaialdiaren edizio berria egingo dute zapatuan, proiektu autogestionatu eta bertako taldeei aukera bat emateko; Gora Etorri, Ikarass, The Van eta Etsipen arituko dira



Urretxun eskaini zuten lehenbiziko kontzertua Ikarass taldekoek.

MUSIKA • A.M.

Tronpa proiektuak antolatuta, *Garajetik* jaialdia egingo dute zapatuan Sorginolan, bigarren bez. Durangaldeko musika taldeak bultzatu eta Durangon sorturiko musika taldeak gatzetxearen inguruan saretzeko helburuagaz jaio zen Tronpa, duela ia urte bi. Gaur egun ia hamar kidek osatzen dute taldea, eta Sorginolan entsegu lokala antontzeko lanetan ari dira buru-belarri. “Lokala behar zela uste genuen, eta udalak laguntzen ez zuela ikusita, gela geu egiten hasi ginen”, azaldu du Martxel Zubia Tronpako kideak. Gelako hormak konponduta daude, eta gela bera intsonorizaturik dago. “Lurra atondu, eta ganorazko ate bat ezartzea falta da; ostean taldeek entseatu ahal izateko beharrezko

materiala sartuko litzateke”, gaineratu du. Entsegu lokala zein jaialdia bera autogestionatuak dira.

Askotariko harrobia

Biharko gauean, hainbat doinuk hartuko dute Sorginolako kontzertu aretoa. Gora Etorri taldea bigarren bez igoko da taula batera, San Faustoetan debut arrakastatsua eduki eta gero. Doinu elektronikoak jorratzen dituzte nagusiki, eta sorpresaren bat ere prestatu dute. “Sorginola gure etxea da, eta zerbait berezia egitea gustatuko litzaiguke; oraingo honetan, jaietako kontzertuan ez bezala, ez dugu mugarik edo mugatzailezik edukiko”, ohartarazi dute. Ikarass durangarrentzat ere bigarren kontzertua izango da zapatukoak. Hauek, baina, doinu ilunak dituzte gustuko. Sei urte daramatza proiektuak martxan; zuzenekoak eskaintzen, ostera, iaz hasi ziren. “Ikasketek, lanak edota bizitzako gorabeherak ez digute utzi lehenago ezer ateratzen”, azaldu dute. Azken hilabeteetan boskote formatua osatu dute, eta

jauzia nabaritu dute ordutik. “Oso ondo konektatzen eta funtzionatzen dugu, eta entsegetan nabaritzen da. Bibrazio onak ditugu. “Post metala eta dooma doinuak jorratzen dituzte, eta Amenra, Cult Of Luna eta Russian Circles taldeak aipatzen dituzte eragin nagusi modura. “Urte hauetan egin duguna etxean erakusteko gogoak daukagu”, adierazi dute. Datozen hilabeteetan estudioan sartzeko gogoak dute durangarrek. “Aurretik maketatxo bat grabatu genuen gure kontura, eta pozik gaude emaitzagaz”, diote.

The Van ere ezagunak dira Tabirako 48.eko etxean. Bertan joko duten hirugarren aldia da biharkoa. Oraingo honetan, baina, formatu berriagaz joko dute. “Gogo itzela dugu”, azpimarratu dute taldekideek. Laster grabazio estudioara sartzeko asmoa dute, beraien lehen maketa izango dena grabatzera. Etsipen ere berrizarrak dira, eta gazteak izan arren, urteak daramatzate kontzertuak eskaintzen. Lokaletik At lehiaketako finala irabazi zuen laukoteak.



Bertako enpresako hainbat teknikari, mantentze lanetarako erabiltzen dituzten autoekin.

Bertako igogailuak: mantentze-lan profesionalaren aldeko apustua

Ospakizunetan daude Bertako enpresan. Hiru urte beteiko dituzte laster, eta badute zer ospatu: Euskal Herrian mantentze-lanak egiten dituzten enpresen artean gehien hazi dena da. Bizilagunen komunitate askok erabakitzen dute mantentze-lan enpresa aldatzea eta Bertakoren aldeko apustua egitea. Urtean, batez beste, 200 komunitatek egiten dute 10-15 urte arteko eskarmetua duten teknikarien aldeko hautua.

Hori da, gainera, Bertakok duen baliorik handiena: teknikariak. Eurek sortutako enpresa da. Beste leku batzuetan lanean jardun eta hango baliabideak ikusita, enpresa berria sortzeko erabakia har-

tu zuten pertsonak. Teknikari horiek 24 orduko zerbitzu erreala ematen dute; hau da, larrialdietan bakarrik barik, abisu guztiak kontrolatzen eta premiak betetzen dituzte, astelehenetik igandera, 24 orduz eta urteko 365 egunetan.

Dena den, eguneroko lan onari esker, egiten duten mantentze-lan onari esker, matxurengatik jasotako abisuak oso gutxi dira. Teknikariek egiten duten lan onak ge-

Benetako 24 orduko zerbitzua ematen dute, astelehenetik igandera, 365 egunetan

rora dauden abisuen kopurua txikitzen du, nabarmen.

Euskararen garrantzia

Bertakok duen beste balio garrantzitsu bat euskararen erabilera da. Lehen momentutik euskaraz jarduten dute: aurrekontuak egiterakoan, komertzialen bisitatan, administraziokoekin berba egiterakoan, kontratuak idazterakoan... Askok eta ondo baloratzen dute bezeroek euskararen erabilera.

Eta behin Bertako aukeratu ostean, bezeroek askatasun osoa dute nahi dutenean kontratua eteteko. Kontratu libreak egiten dituzte. Urtebetekoak. Bezeroak engainatu barik eta iraupen-konpromiso barik.

Ia hiru urteko ibilbidean, bezero askok Bertako aukeratu dute eskaintzen dituen

tarifengatik. Oinarrizko kontratua hileko 80 euro ingurukoa da eta arrisku orotakoa, hileko 100ekoa. "Prezio logikoak dira. Ez da normala Euskal Herriko enpresa batzuek 160 euro kobratzea arrisku orotako zerbitzuarengatik eta inguruko eskualdeetan prezio hau ia erdira jaistea, bertan ditugun enpresa askok gure tarifa merkeagoak erabiltzen dituzte. Hori bai, Euskal Herri inguruan ditugun eskualdeetan", diote enpresakoek.

Larrialdi zerbitzua

Ia hiru urteko ibilbidea laburra da, baina nahikoa izan da lorpen arrakastatsuetara heltzeko: bezero guztiak dute igogailuaren larrialdi sistema telefonoetara lotuta eta guztiak dituzte LED argiak. Argi kontsumoa murrizteko automatikoki itzaltzen diren argiak, alegia.

Duela ia hiru urte sortutako enpresa izanda ere, bere zabalkundea itzela izan da beste bailara eta lurralde batzuetara.

Bizkaian, Durangon eta Bilbon biltegiak ditu Bertako enpresak. Hori horrela, ematen duten zerbitzua oso azkarra da, profesionala eta gertukoa. 94-652 39 35 telefonoan eska daiteke informazioa eta aurrekontua. Beti ere, lehen berba euskaraz jasota.

Hobekuntza teknologikoak igogailu zaharretan

1- Telefono zaharretako instalazioak berritzen dituzte. Hori horrela, uneoro daude kontaktuan bezeroekin. Berehalako erantzuna ematen diete abisuei eta ezustekoei.

2- Igogailua modernizatzeko aukera ematen dute. Aukera ematen duten maniobretan igogailuak monitorizatuta dituzte.

3- Igogailu zaharrak modernizatzeko eta berritzeko elektronika osoa eta motorra aldatzen dituzte. Era berean, ordaintzeko erraztasunak ematen ditu Bertakok. Igogailu batek arazo asko dituenean, ezinbestekoa da elektronika zati osoa aldatzea.

Eskaintzen ditugun zerbitzuak, hilean 100 eurotik aurrera

• 24 orduko zerbitzua abisu guztientzat.

• Pieza guztiak barne, orotariko zerbitzuan.

• Iraupen-konpromiso gabeko kontratua.

• Larrialdi telefonoa doan, instalazio guztietan.

• Bakarrik itzaltzen diren LED argien instalazioa doan.

• Efizientzia energetikoan oinarritutako ikuskapena

Lorca eta Lauaxeta poeten berbak uztartzen dituen 'Ele' lana, Zornotzan

Gaur estreinatuko dute Zornotzan "Ele! Lorca-Lauaxeta" Jon Maia bertsolariak idatzitako antzezlanak; dantzak, musika eta poesia uztartzen ditu; 20:15ean hasiko da



Dantzak, musika eta poesia uztartzen ditu antzezlanak.

ANTZERKIA • A.M.

Bakoitza bere kulturen, bi poeta ikoniko dira Esteban Urkiaga *Lauaxeta* eta Federico Garcia Lorca. Hasiera batean hain urrunekoak

diruditen bi pertsonaien ibilbideak gurutzatu ditu Jon Maiaren gidoiak. Errealitatean ere uste baino hurbilago egon ziren bata bestearengandik, *Ele* obraren egi-

leen arabera. "*Lauaxeta* bera Lorca zalea zen, eta bere garaian saiatu zen poeta andaluzagaz harremanetan jartzen". Bata Andaluzian jaioa, bestea, berriz, Euskal Herrian

jaiotako poeta abertzalea, biak ala biak gazte hil ziren askatasunaren aldeko borrokan.

Beraien obra da antzezlanaren ardatza, eta musika, irudiak eta antzerkia erabiliko dituzte janzteko. "Bi poeten obra hiru modu ezberdinetara erakutsi gura dugu: berbaren, dantzaren eta musikaren bidez", azaldu du Josu Kamara zuzendariak. Hitzek Jon Maia eta Ana Salazar flamenko kantaria arduratu dira; dantzariak, oster, Arkaitz Pascuas eta Angela Carbajo de Lera dira; bi munduetako musikak uztartzeaz, berriz, Gorka Hermosa eta Jesus Prieto "Pitti" arduratu dira. Argiztapena egileek zaindu duten beste alorretako bat da, izan ere, irudi prefabrikatuak egongo dira antzezlanak laguntzen.

Josu Kamara, etxean

Zornotza Aretoko aurkezpenean Josu Kamara zuzendariak nabarmendu zuen areto horretan aritzea berezia izango zela. "Hemen egiten dut lan, eta hemen sortu dut, hau berriz etxera etortzea da", esan du. Ele euskarazko berba izateaz gainera, adiera andaluzia ere badu; beraz, izenburuak ere bi kulturen arteko zubi lana egiten du. "Guretzat emozio handikoa da antzezlanak, eta hau Zornotzan ere horrela bizitzea gura dugu", nabarmendu du.

Durangora iritsi da Hozkailua, Unai Iturriagak idatzitako antzezlanak

Iazko apirilko Aulestiko antzerki topaketetan estreinatu zuen obra Huts Teatroak; Unai Iturriagak idatzi du, eta Ander Lipusek eta Patricia Urrutiak egiten dituzte aktore lanak



Ander Lipus eta Patricia Urrutia dira Karlos eta Maite.

ANTZERKIA • A.M.

Aspaldiko hiru lagun elkartuko ditu *Hozkailua* antzezlanak. Maite eta Karlos lagun-min izandakoak herririk herri ibiliko dira Jimmy lagunaren hilotza gordetzen duen hozkailu batez. Bere garaian, Jimmyri bere jaioterrian lur emango ziotela agindu zioten, baina nongoa zen galdetzea ahaztu zitzaizkien. 80ko hamarkadan punky izandako bi lagunak ibilbide ezberdina eduki dute hamarkada hauetan, eta berriz elkartzean, gorpua non ehortzi

asmatu beharko dute. "Zinezko adiskidantza bat azaleratuko duen ezinezko bilaketa baten istorioa da", *Hozkailua*ren egileen berbetan.

Abiapuntu hori du antzezlanak, eta umore beltzez jantzita dago. Gaztaroko ametsen eta helduaren jokabideen arteko lerro hautsiaz modu kritiko eta komiko batean aritzeko aitzakia da antzezlanak; "Gure herriari botatako begirada kritiko bat da", adierazi dute. Unai Iturriagak idatzi du obra, eta Ander Lipus eta Patricia Urrutia dira aktoreak. Zuzendaritzan, oster, Manex Fuchs aritu da.

Bi emanaldi Durangon

Durangon, bi egunetan egongo da *Hozkailua* ikusteko aukera, otsailaren 1ean, 19:00etan, eta otsailaren 2an, 20:00etan.

Geure Durangaldea

Jon Ander Urkiaga Sarrionsfasandia Irakaslea



Gero arte!

Bukatu da, bukatu da, bukatu da... oraingoz. Izan ere, ez dira betiko garai lasaienak. Zenbat bete-behar? Lau, bat, hiru, bost, zazpi... eta egunak 24 ordu! Boulevardeko erlojuak ez dakit atsedetik hartzen duen, nireak ez. Zoratzen ari naizela, hasi naizela dio nire ondokoak, eta arrazoi du. Beraz, gero arte esatera nator gaurkoan.

Baina despedida gozoa da gaurkoa, zazpi urtez gustura jardun izan duenaren ezti-zaporea dario agur honi. Izan ere, askatasunez eta askatasunetik idazteak ez dauka preziorik (ala bai? galde izeaiezue Alfredori eta Iñaki Sotori; hitzak aske!).

Durangoko Txosnaguan hasi zen guztia, 2010 (urrun) hartan, eta urte batzuk joan dira harrezkerok; beharbada, garai hartakoa eta egungoa bi ni gara, gorputz bereko arima bi: inozentzia gutxiago, malezia gehiago... Beharbada. Baina zin dagit txoko honetan idatziriko guztia zintotasunez eta konbentzimenduz (osoz?) idatzi izan dudala, irakurleari ez niolako gutxiago zor (eta neuri ere ez).

Agurrak beti ohi dauka zapore garratza, baina hau ez da agur bat, eta gero arte esanez sakatuko dut amaierako puntua.

Baina bitartean... jakina ez dugula izaterik aske haiek gabe, jakina azala, hezurak, haragi puska baino gehiago dela, eta Euskal Herrian euskaraz hitz egiterik ez bada, garbitu ditzagun zorriak ur-pistola batez!

Alicia después de Alicia
Kabia Teatroa
Urtarrilaren 27a,
20:00etan

Hozkailua
Huts teatroa
Otsailaren 1a,
19:00etan

San Agustín KULTUR GUNEA
SARRIONSFASANDIA
Sanagustinalde, 12 · Tel.: 946 030 021 · sanagustin@durango.eus

www.plateruena.eus

PLATERUENA
Kafe Antzokia
Landako Hiribidea, 4A
DURANGO
Tel.: 946 030 300
jatekxtea@plateruena.net

AMAMA
Urtarrilak 28 - 18:00etan
Filmea

MECANO SING ALONE
Otsailak 3 - 21:00etan
Kontzertua

MICE
Otsailak 4 - 13:00etan
Aperitifa session

Durungaldeko berbalagunen IX. Kultur Lehiaketa

1. Nork ekarri zuen XV.mendearen Kuruziagako gurutzea Durangora? a) Alkateak b) Herriko apaizak c) Monje frantziskotar batek	2. Non dago Galarreta pilotalekua? a) Eibarren b) Hernanin c) Gasteizen	3. San Blasak Abadiñon ospatzen direla ezagun dugu baina non gehiago ospatzen dira? a) Laudion b) Oñatin c) Lekeition	4. Noiz ospatzen da Donostiako Danborrada? a) urtarrilaren 18an b) otsailaren 12an c) urtarrilaren 20an	5. Nork irabazi zuen 2017ko literatura nobel saria? a) Bob Dylanek b) Kazuo Ishigurok c) Svetlana Aleksievichek
6. Zenbat izendapen ditu Goya sarietarako Handia filmak? a) 10 b) 11 c) 13	7. Nola deitzen da Gasteizko Arte Garaikidearen museoa? a) Artium b) San Telmo c) Zumalakarregi	8. Zein entrenatzailek igo zuen Eibar futbol taldea lehenengo mailara? a) Ernesto Valverde b) Gaizka Garitanok c) Jose Luis Mendilibarrek	9. Zenbat urte bete ditu aurten Durangoko liburu eta diska azokak? a) 25 b) 30 c) 52	10. Zein animaliak egiten du lo gutxien? a) Txerriak b) Jirafak c) Urtxintxak
11. Sukaldari ospetsu hauetatik zein ez da Gipuzkoarra? a) Juan Mari Arzak b) Pedro Subijana c) Eneko Atxa	12. Nork irabazi zuen 2017ko Bertsolari txapelketa nagusia? a) Aitor Mendiluzek b) Maialen Lujanbiok c) Igor Elortzak	13. Nork asmatu zuen 60. hamarkadan sortu zen Ez dok amairu taldearen izena? a) Joxe Angel Irigarai b) Jorge Oteizak c) Joxe Artzek	14. Nork irabazi zuen 2017an Igartza literatur saria? a) Kattalin Minerrek b) Miren Amurizak c) Uxue Alberdik	15. Noiz burutu zen Berbalagunek iaz antolatutako V.mintzodromoa? a) 2017ko abenduaren 17an b) 2017ko azaroaren 30ean c) 2017ko urriaren 8an
16. Zenbatgarren korrika egingo da 2019an? a) 20.korrika b) 21.korrika c) 2019an ez da korrikarik egingo	Izen-abizenak eta telefonoa: Erantzun zuzena markatu, eta entregatu herriko edozein euskaltegitan edo euskara-zerbitzuan, otsailaren 8a baino lehen. Saria, e-book bat.			



“Ahizpak gara eta elkarri laguntzen diogu, baina elkar xaxatzen ere badakigu”

Bidezabal Atletismo Klubak neska gazteen harrobi sendoa du eta horren adibide dira Nerea eta Irene Costa ahizpak



Irene Costa Alberdi
Bidezabaleko atleta
Durango | 2002

Nerea Costa Alberdi
Bidezabaleko atleta
Durango | 1998

Bidezabal Atletismo Klubeko gazteak Durangoko Arripausuetan entrenatzen dira.

ATLETISMOA • JOSEBA DERTEANO

Pistan zein krosean inoiz baino neska gazte gehiago dabilta. Miguel Angel Munitxa Bizkaiko Atletismo Federazioko presidentek esandako berbak dira. Loraldi horren protagonistetako bi Irene eta Nerea Costa dira. Ahizpak dira onerako zein... ez hain onerako. Batak besteari laguntzeko beti prest, elkar xaxatzen ere badakite, konplizitate berezia dutela sumatzen den arren. Eta biak ala biak etorkizun handiko korrikalariak dira.

Nerea, futbolaren, saskibaloia eta taldekako beste hainbat kirol ezagunen artean, zergatik aukeratu zenuen atletismoa?

Nerea Costa: Olga gure ahizpa nagusia zein lagunak saskibaloian zebiltzan, baina nik ez nuen gura. Niri txikitan korrika egitea gustatzen

zitzaidan, eta nire lagun-minagaz batera atletismoan hasi nintzen.

Irene, umea zinela zure ahizparen makina bat lasterketa ikusiko zenuen, ezta?

Irene Costa: Bai, ibiltzen ginen, baina batzuetan umeek ere parte hartu zezaketen, eta neu ere korrika aritzen nintzen. Hasieran, ez nekien saskibaloia eta atletismoaren artean zein aukeratu, ahizpa bat saskibaloian aritzen zelako, eta bestea atletismoan. Azkenean, atletismoan hastea erabaki nuen.

N.C.: Nik atletismoa aukeratzeko esaten nion eta Olgak, berriz, saskibaloia. Bietatik entzun zuen.

Krosa ala atletismoa. Zer gustatzen zaizue gehien?

I.C.: Niri, krosa. Krosean gehiago sufritzen da, baina pista, distantzia laburragoak badira ere, luzeago egiten zait, hari bueltaka zabilzalako beti. Nire etorkizuna, beharbada, gehiago ikusten dut krosean.

N.C.: Desberdin bizi diren kirolak dira. Biak gustatzen zaizkit. Atle-

tismoan espezialitate gehiago dauka: korrika, jaurtiketak, saltoak... Etorkizunean, nire burua gehiago ikusten dut pistan. Krosa oso baliagarria da pistarako prestakuntza moduan.

Korrika egitea ez den beste espezialiterik probatu duzue?

N.C.: Altuera-jauzia, baina aspaldi utzi nuen. Txikitan gauza desberdinak probatzen dituzu, ondoen eta gusturen non zabiltzan jakiteko.

I.C.: Ni ere altuera-jauzian ibili naiz. Aurten ez dakit errepikatuko dudana, oraindik krosean gabiltza eta.

Zelan doa kros denboraldia zuzat?

I.C.: Ni lesionatuta nago. Tendinitisa daukat. Joan zen astean hasi nintzen entrenatzen.

N.C.: Aurten promesen mailan nabilenez, iaz baino distantzia luzeagoak egiten nabil. Lau-bost kilometro barik, zortzi. Aldaketa handia da. Zornotzako nazioarteko krosean izan nuen lehenengo esperientzia eta sufritu egin nuen.

Arin hasi ostean, erritmoa apur bat jaitea erabaki nuen. Joan zen asteburuan gustura aritu nintzen Berrizen, eta irabazi egin nuen nire mailan. Aurrera begira, Bidezabaleko promesen taldea Espainiako kros laburren txapelketarako sailkatuta dago, eta otsailaren 25ean Gijonera joango gara.

I.C.: Guk otsailaren 11n dugu sailkapen proba.

Espainiako txapelketetan parte hartzea errealitate dosi bat hartzea lako da?

N.C.: Bai, beste maila bat dago. Euskadin aurreko postuetan zabilta eta han erdi inguruan.

Irene, zure ahizparen pausoei jarraitzen zabilta. Bide horretan, Nerea eredu edo ispilu izan da zuretzat?

I.C.: Bai, une batzuetan, bai. Zer egiten duen, zelan egiten duen... Gertuko erreferentzia izan da, eta da.

Bata besteagaz lehiakorrek zarete? Badituzue piketxoak?

I.C.: Elkarregaz entrenatzen bagara, berari irabazten saiatzen naiz.

N.C.: Ahizpak gara eta elkarri laguntzen diogu, baina batak bestea xaxatzen ere badakigu, egia esan.

I.C.: Inoiz esan dit: “Nik zure adinagaz distantzia honetan denbora hau egiten nuen...”. Eta antzerakoak (barreak).

N.C.: Tira, animatzeko esaten diot, motibatu dadin.

I.C.: Eta motibatzen nau, berak baino hobeto egin behar dudala pentsatzen dut.

N.C.: (Ahizpari begira) Anekdotak hura kontatu dezaket?

I.C.: Bai, aurrera.

N.C.: Iazko denboraldi hasieran gaixorik egon nintzen. Bi-hiru hilabete entrenatu barik eman nituen. Gaixotasuna gainditu eta pistara neure burua probatzera nindoala, Irenek nigaz zetorrela esan zidan. Luzaroan entrenatu barik nengoe eta irabazi egingo zidala esaten zuen. “Niri irabaztearren, Irene kapaz da gonbitoka hasteraino indarrustuta geratzea”, esan nuen pistan entrenamendua hasi aurretik. Hasi ginen korrika, eta eginahalak egin zituen niri irabazteko. Hainbeste ze, esan nuena bete egin zen.

I.C.: Aukera aprobetxatu gura nuen, baina... gaixotasunaren ostean berari laguntzeagatik ere joan nintzen.

Lesionatuta zaudetenean, esperotako emaitzak lortzen ez direnean... Batak bestearen babesa edo aholkua bilatzen duzue?

N.C.: Bai, jakina. Elkar animatzen dugu eta bata besteari laguntzen saiatzen gara.

I.C.: Normala da. Azken batean, ahizpak gara.

Nerea, atletismoan Espainiako txapelketan aritutakoa zara?

N.C.: Orain hiru urte sailkatu nintzen lehenengoz Espainiakora, 1.500 metroko proban. Orain urte bi finalera heldu nintzen, eta seigarren amaitu nuen.

Eman aholku batzuk ahizpari. Zein da 1.500 metroko proban ondo aritzeko sekretua?

N.C.: Konstantzia, iraunkorra izatea. Ibiliko zaren erritmoan hastea.

Pozik zabilzate Bidezabalen?

I.C.: Oso pozik nabil. Giro ona dago. **N.C.:** Isidoro Hernandez entrena-tzailea gu ulertzen saiatzen da. **I.C.:** Eta badaki gu motibatzen.

Arrikeri
Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403

katerin ardoak
inaki uribe

saltsan

Eguneko menuak - Asteburuetak menu bereziak
Delicatessena - Ardotegia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

Abinara Urreta Jainaga

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

IMQ **MAPFRE**

Herriko gudarien kalea, 10 behe - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

Bocineros-Deiadar ultra trail berria Oizetik eta Gerediagako juntetxe ondotik igaroko da irailean

Bost mendi bozinerokak eta Bizkaiko hiru batzar orokorretako egoitzak batuko dituzte 200 kilometroko lasterketaren bidez

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Aurtengo irailaren 14tik 16ra Bocineros-Deiadar Xtreme proba berria lehiatuko dute Bizkaian. Ultra trail distantzia (200 kilometro) duen mendi lasterketa Durangaldetik igaroko da.

Bizkaian historikoki esanguratsuak izan diren puntuak batuko ditu probak: bost mendi bozinerokak eta Bizkaiko batzar orokorrak dituen hiru egoitzak. Mendi bozinerokak esaten zaie Erdi Aroan Bizkaiko batzar orokorretara deituzeko erabiltzen zituzten mendiei: Oiz da horietako bat (1.062 metro) eta lasterketa handik igaroko da. Tematika beragaz jarraituz, Bizkaiko batzar orokorren hiru egoitzak lotuko ditu lasterketak: horietako bat Abadiñoko Gerediaga auzoan dago. Hain zuzen, lasterkariak hornidura puntu bat aurkituko dute bertan.

Gernikako arbolaren parean hasi eta amaituko den ultra trailak 32 herritatik eta 25 tontorretatik igaroko da, eta 22.000 metroko desnibel metatua izango du. Antolatzaileek argitu dutenez, distantzia



Oiz menditik igaroko da ultra trail honen lehenengo aldia.

honetan European egiten den lehenengo lasterketa izango da.

Bi proba laburrago

Proba berriak duen gogortasunaren jakitun, laburragoak diren beste bi ere antolatuko dituzte Trail

52 Sport Mendi Klubeko antolatzaileek: 105 eta 45 kilometroko bana. Ehun kilometro pasatxoko Deiadar Ultra ere Durangaldetik igaroko da. Dozena bat mendi sartu dituzte ibilbidean eta Oiz da horietako bat. 10.400 metroko desnibel metatua

izango du. Deiadar Maratoia deitzen da hiru probetan laburrena eta 4.400 metro inguruko desnibel metatua izango du. Kasu honetan, Busturialdetik, Sollubetik eta Urdabaiko erreserba naturaletik igaroko da.

Eneko Bovedak "erronka berri" bati ekin dio Deportivon

Athletic utzi eta Galiziako taldera batu da futbolari durangarra; denboraldi birako kontratua sinatu du

FUTBOLA • J.D.

Eneko Bovedak (Durango, 1988) Athleticen jokatzeko aukera gutxi zituen aspaldian, eta beste toki batean probatzea erabaki du. Coruña-ko Deportivo taldean arituko da denboraldiko bigarren erdian, eta beste urte birako kontratua ere badu. "Hainbat taldegaz izan nuen hartu-eman, eta Deportivo izan zen interesik handiena erakutsi zuena. Erronka desberdin bati au-

re egiteko desiratzen nengoen", azaldu zuen Bovedak martitzenean, lehenengo entrenamenduaren osteko prentsaurrekoan.

Galiziarako bidea hartu aurretik despedidarako mezu hunkigarri bat zabaldu zuen. "Segi gure taldea eta gure filosofia maitatzen, eta maitatu zuen jokalaria, aldagela horretan altxor handi bat dago eta", helarazi zien Athleticeko zaleei.

Zornotza ST-k sendo darrai EBA mailan eta lau garaipeneko zuloa ireki du sailkapeneko goialdean

SASKIBALOIA • J.D.

EBA mailan Zornotza Saskibaloia Taldea eta Kantabriako Iguatorio taldea dira A multzoko talderik indartsuenak. Sailkapeneko buruan daude biak, 17 partidutan porroto bakar batez, eta dagoeneko lau partiduko alde ateratzen diete hurrengoei.

Bigarren itzulia lehenengoaren bide beretik hasi du Zornotzak: garaipenik garaipen. Joan zen asteburuan 100 puntuko langa gainditzea lortu zuten zaleen au-

rrean. 103-70 xehatu zuten Piela-gos taldea. Aurten hainbat bider

Joan zen asteburuan 100 puntuko langa gainditu zuten; aurten hainbat partidutan lortu dute marka hori

lortu dute marka hori. Multzoko saskiratzaile nagusiak dira, alde handiagaz.

Adituaren txokoa

Eneritz Iturriagaetxebarria
Mazaga
Txirrindulari ohia



Kirol profesionalean, emakumeak non daude?

Egunotan albiste da eta sarritan entzun izan dugu: bai Murias Taldearen eta baita Euskadi Fundazioaren eskutik ere, etxeko taldeak indartuta irten direla eta berriz ere marea laranja gure errepideetan ikusteko aukera izango dugula. Afizioa, txirrindularitza zaleak, berriz errepide bazterretara irtengo direla, eta lemak euskaraz oihukatuz entzungo ditugula.

Bai, berri oso ona, bikaina da gure kirol maiterako. Etxeko txikiek berriz ere non begiratu izango dute. Txirrindularitzagaz amets egiteko ereduak parez pare izango dituzte. Euren idoloak orain direna, etorkizunean eurak izateko ilusioa berpiztu dakieke. Era berean, kirolaren bidez balioak lantzeko eta barrutik bizitzeko aukera sortu dakieke. Aukera asko eskaintzen ditu.

Baina txirrindularitza jarraitzen dugunok, badakigu hori ez dela albiste bakarra. Gobernuak emakumeen taldea ere sustatu du proiektu berean, eta non dago albiste hori? Emakumeentzat ere panorama goxoa datorrela dirudi, baina argi dago horrek ere zabalkundea behar duela hedabideetan; eta ez orrialdeko zatirik handiena gizonei eskaini, eta, txikian, emakumeak. Alderdi hori ere landu beharra dago proiektua indartzeko.

Badakigu horretan kazetariak ere lagundu behar dutela. Dei egiten diet emakumeen txirrindularitza profesionala ere zabaldu dezaten, neskak ibili badabiltzalako munduan zehar jo eta su lehiatzen. Beraz, jarri dezagun denok geure aletxoak izan dadin eta emakumeen txirrindularitza bazter guztietara heldu dadin.



TABIRA

Eguneko zentroa eta Egoitza gerentzia berria

Intxaurren, 27 DURANGO
944 668 852 / 690 622 499

Hartu atsedenditxo bat

www.cuidamosdetusmayores.com

- Zaintza eta zerbitzua adindunei
- Prebentzio Sanitario, Psikologiko eta Fisioterapeutiko handia
- Ile-apainketa eta podologia zerbitzua
- Aisialdia eta eguneko ibilaldiak
- Terapia okupazionala
- Aldi baterako egonaldiak
- Herriguneko instalazioak ongi komunikatuta
- Zaintzailearen atsedena
- Lan talde bikaina

“Talde gaztea gara, 24 urtetik beherakoak dira jokalaria gehienak”

Julza Zaldua gizonen saskibaloia taldea iaz berreskuratu zuten. Mailari neurria hartu diote, hamargarren garaipena lortu dezakete segidan, eta igotzeko hautagai sendoak dira



Urko Zamakona taldeko jokalaria eta kapitaina da, eta neska kadeteen taldea ere entrenatzen du.

SASKIBALOA • JOSEBA DERTEANO

Zaldibarren gizonen saskibaloia taldea berreskuratu zuten iaz. 2009tik desagertuta zegoen. Sasoi bateko zuzendaritzagaz eta jokalaria berriekin kantxetara itzuli ziren,

eta aurten lehenengo igoera lortzeko bidean daude. Bizkaiko Bigarren Erregionaleko igoera postuan kokatuta, asteburu honetan hamargarren garaipena lortu dezakete segidan, Barakaldoko Boskazaleak

taldearen kantxara egingo duten bisitan.

Urko Zamakona (Durango, 1986) taldeko kapitaina eta jokalaria beteranoetakoa da. Tabirakon ibilitakoa da, eta talde berriaren

sorreran parte hartu zuen. Zaldibarko, Durangoko —batez ere Tabirakoko— eta Ermuako jokalaria batu zituzten abentura berriari ekiteko. Taldearen bihotza gazteak direla azaldu du. “Maila dezentea duten gazteak daude. Oro har, talde gaztea gara. Jokalari gehienek 24 urtetik behera dituzte eta 16 urteko bat ere badabil gugaz”, adierazi du. Hain zuzen, jokalaria gazte horiei mailaz igotzea ondo etorriko litzaiekeela uste du. “Maila oneko jokalaria dira eta igotzea behar dute, jokalaria moduan euren garaipenagaz jarraitzeko. Klubari ere ondo etorriko litzaioke”, esan du.

Hasieratik, indartsu

Iaz, normala den moduan, martxa hartzea kostatu zitzaion, eta horrek mailaz igotzea eragotzi zien. “Jende berri asko geunden eta ez genuen elkar ezagutzen. Lehenengo itzulian partidu dezente galdu genituen. Ondoren, beste gazte batzuk etorri zirenean, gora egin genuen eta bigarren itzulian apenas galdu genuen partidurik, baina igoeraren atarian geratu ginen”, gogoratu du Zamakonak.

Aurten, konfiantza handiagoga, denboraldi hasieratik egurrean dabilta eta igoera postuan daude. “Erritmoan eta intentsitatean dago gakoa. Egunez egunera hobeto gabilta”, dio Zamakonak.

Zaldai mendi taldeak bigarren mendi erronka abiatu du azaroaren 30era arte

MENDIA • J.D.

Iurretako Zaldai Mendi Taldeak mendi erronka antolatu zuen iaz, lehenengoz. Ekimen arrakastatsua izan zen eta 81 lagunek amaitu zuten. Hori ikusita, aurten berriz antolatzea erabaki dute. Mendiak ezagutaraztea eta zaletasuna sustatzea dute helburu.

Parte hartu gura dutenek www.zaldaimenditaldea.org webgunean eman dezakete izena. Zaldaik mendien zerrenda bat egin du, eta parte-hartzaileek zerrenda horretako mendi kopuru bat igo beharko dute, Euskal Herrian edo Pirinioetan. 18 urtetik gorakoek hamar mendi igo beharko dituzte, gutxienez bost herrialdeetakoak. 18 urtetik beherakoek hiru herrialdeetako bost mendi igota lortuko dute erronka. Azkenik, 10 urtera artekoek bost mendi igo beharko dituzte, Zaldairen zerrendakoak zein Euskal Herriko buzoidun beste edozein mendi.

Mendien zerrenda Zaldairen webgunean aurkitu daiteke.

Asteko kirolaria



JUNE ARBEO SARRIUGARTE
Durango, korrikalaria

June Arbeo Durangaldea Running taldeko korrikalaria maila izugarria ari da ematen aurtengo denboraldian. Joan zen asteburuan, esate-

“Aurten oso indartsu nago psikologikoki, eta horri esker emaitza onak lortzen nabil”

Bizkaiko Txapelketa irabazi berri du June Arbeo korrikalaria durangarrak

rako, Berrizen jokatutako Bizkaiko Txapelketa irabazi zuen.

Nola joan zen lasterketa?

Lasterketara nahiko kantsatuta heldu nintzen arren, banekien lasterketa irabazteko aukerak nituela. Orduan, lasterketako ardura neuk ez hartzea erabaki nuen. Lasterketa osoan zehar nahiko eroso joan nintzen eta Maria Ruizek, bigarren sailkatuak, lasterketa gogortu zuenean, bere erritmoari

eustea lortu eta azken kilometroan bakarrik aurrera egitea lortu nuen.

Azken asteotan maila izugarria ematen ari zara. Zornotzako nazioarteko krosa irabazi zenuen eta Elgoibarko nazioarteko krosean laugarren amaitu zenuen.

Banekien aurten denboraldi ona egin nezakeela eta, Zornotzan, esaterako, lasterketa irabazteko aukera handiak nituela. Baina Elgoibarko nazioarteko krosean

hain aurrean ibiltzea eta korrikalaria onei irabaztea ez nuen espero. Hala ere, egia da zirkuitua oso lokaztuta zegoela, eta hori niretzat onuragarria zen.

Zirkuitu gogor eta lokaztuak dira zure dohainetara ondoen egokitzen direnak?

Egia esan, bai. Lokatza dagoenean, erritmoa ez da oso altua izaten, eta niretzat hori ona da. Gainera, zirkuitu lokaztuetan indarra behar izaten da azkar mugitu ahal iza-

teko, eta horrelako zirkuituetan ondo moldatzen naiz.

Nola zaude aurtengo denboraldian? Aurten oso indartsu nago psikologikoki, eta horri esker emaitza onak lortzen nabil. Gainera, duela urte batzuk ez bezala, lasterketa eta entrenamenduak ez ditut jolas moduan hartzen.

Zeintzuk dira begiz jota dituzun hurrengo helburuak?

Otsail hasieran Euskadiko txapelketa daukagu, eta lasterketa ona egin eta garaipenaren lehian ibiltzea gura neuke. Zenbait korrikalarik maila paretsua daukagu, eta lasterketa borrokatua izango da. Bestalde, Espainiako txapelketan ere aurrean ibiltzea gura nuke, lehenengoan artean.



Baserritarren eta Euskal Herriko basoen zerbitzura

Etxebarrieta auzoa - 48215 Iurreta
Tel.: 946 205 187 - Faxe: 946 205 194

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO
Tel.: 946 813 562

ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

www.inmoetxetxo.com
//AUKERA
DURANGO Semi-nuevo. Centrico. Apartamento. Soleado. 143.000€
IZURTZA 2 logela. Bainugela. Egongela. Bizitzera sartzeko moduan. Ganbara eta txakurrentzako txabalola. 72.000 €
IURRETA 2 Hab. Bañó. Cocina. Salon-comedor. Calefac. 120.000€
ZALDIBAR Iturrioz. 3 logela. Bainugela. Egongela. Terraza. Igogailua. 129.000 €
//ETXEBIZITZAK SALGAI
ANTSO EZTEGIZ 90m. 3 gela. Komuna. Sukaldea. Egongela eta terraza. 165.000€.
ASK.ETORBIDEA 65m. Berriztatua. Sukaldea. Lehorgailua. Egongela. Ganbara eta garaje. 175.000€
SAN IGNACIO 85m.3 gela. 2 komun. Sukaldea lehorgailuarekin. Egongela terrazarekin. Traselekua eta garajea. Igerilekua.
MONTEVIDEO Pisu altua, 3 gela. Komuna. Sukaldea. Egongela. Ganbara. 155.000€
IURRETA 3 gela. Komuna. Sukaldea. Egongela Terrazarekin. 130.000€
ABASOLO 107m. 3 gela. 2 komun. Sukaldea. Egongela y 2 terraza. Ganbara y garaje itxia. 279.000€.
J.A. AGIRRE Azken solairua. 3 gela. 2 komun. Sukaldea. Lehorgailua. Egongela terrazarekin. 2 ganbara. Garaje.
LANDAKO (TXIBITENA) 100m. 4 gela. 2 komun. Sukaldea. Lehorgailua. Egongela handia. Ganbara. Garajea. Kanpoaldea.209.000 €
INTXAURRONGO 2gela. Komuna. Sukaldea. Despentsa eta trastelekua. 85.000€
ANBOTO 3 gela. Komuna. Sukalde handia. Egongela balkoarekin. Dena berria. 178.000 €
F. J. ZUMARRAGA 130m. Berriztatua 4 gela (orain 3 gela.) armariuekin, 2 komun. Sukaldea eta egongela handia.Terraza. Ganbara. Trastelekua eta garaje itxia 2 autorentzako (aukeran). 285.000 €
BERRIZ Txalet adosatua. 4 gela. 4 komun. Egongela bi terrazekin. Sukalde handia. Garajea eta txokoa. 410.000.-€
LANDAKO ETORBIDEA 3 logela. 2 bainugela. Sukaldea. Egongela. Terraza. Ganbara. Trastelekua eta garajea. 226.000 €
//LOKALAK SALGAI ETA ALOKAIRUAN
LOCAL INVERSION 50m2. Prestatuta. 85.000€.
DURANGO TABERNA martxan. 95 m2. 162.500 €
C/ERMODO ALOKAIRUA. 600 €
ZALDIBAR Salmenta. Ganbara zabala. Egokia bulegoa eta estudioa izateko. 24-35 m2. EKONOMIKOA.
F.J. ZUMARRAGA. AUKERA. 114 m2. SALMENTA 150.000 €
IBAIZABAL 50 m2. Guztia jarrita. SALMENTA / ALOKAIRUA. 500 €.

//ETXEBIZITZAK ALOKAIRUAN
DURANGO. Bat, bi eta hiru logelako etxeak alokairuan. Hilean 600€-tik hasita.
//ETXEBIZITZAK SALGAI
DURANGO. Astarloa kalean. Hiru logelako pisua, Egongela balkoiarekin, komuna eta ganbara. 90 m2.
DURANGO. Gasteiz bidean. Lau logelako pisu ederra, Egongela balkoiarekin, sukalde ederra, komuna, ganbara, Eta aparkalekua. Gela guztiak kalera, eta oso argitsua.
DURANGO. San Fausto. Logela biko pisua,Sukaldea, bainugela eta logela. Merkea
BERRIZ. Etxebizitza guztiz berriztua, 3 logelarekin, bainugela, sukaldea balkoiarekin, egongela balkoiarekin eta despentsa. Dotorea.
DURANGO. Francisco Ibarra. 4 logelako etxebizitza, 2 bainugela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta despentsa.
DURANGO. ARTEKALE. Azken duplex-ak, Logela bikoak, bi bainugelarekin. Prezioak 179.000 €-tik hasita.
LEKEITIO. 3 logelako etxebizitza, bainugela, sukaldea, egongela terrazarekin, garajea. Urbanizazio pribatu baten barruan, igerileku eta frontoiarekin.
ABADIÑO. Iturritxo. Logela bateko apartamentua, sukalde amerikarra-egongelarekin, bainugela, esekitokia, ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.
DURANGO. ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 bainugela, sukalde amerikarra, egongela, garaje itxia eta terraza ikaragarria.
ATXONDO. Etxebizitza 2 logelarekin, bainugela, despentsa, sukaldea esekitokiarekin, eta egongela.
ZALDIBAR. Etxebizitza, 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela balkoiarekin, guztiz berriztatua. Horrez gain, trastelekua.
//LURSAILAK SALGAI
ABADIÑO. 15.000 m2-ko lursaila salgai. Rurala. Kokapena ezin hobea
ABADIÑO. 1.000 m2-ko lursaila salgai, bifamiliarra eraikitze baimenarekin. Zonalde egokia.
BERRIZ. 10.000 m2-ko lursaila. Zelai ederra sarbide oso onarekin.
IURRETA. 5 hektarea inguruko lursaila, Abeletxe bat egiteko aukera dago. Sarbide onarekin.
ABADIÑO. Bifamiliarra eraikitze lursaila, 1.000 m2. Informazio pertsonalizatua.
AMOREBIETA. EUBA. Txalet bifamiliarr bat eraikitze lursaila, 3.000 m2 inguruko azalerarekin.
//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI
MAÑARIA. Izugarrizko baserria salgai. Herrian bertan. Lursaila 3.000 m2. Bizitzeko moduan. Oso polita.
ELORRIO. Aldape auzoa. Baserria berriztatze, 3 hektareako lursaila. Prezioa 160.000 €
ATXONDO. Baserri ikusgarria Martza auzoan, 15.000 m2-ko lursaila baserriaren inguruan. Teilatu berria. Zonalde pribilegiatua.
BERRIZ. Bº Murgoitio. Bifamiliarr ederra salgai. 6 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 6 bainugela, garaje bikoitza, 12.000 m2-ko lursaila. Kokapen ezin hobea, Anbotora begira.
MENDATA. Lamikiz auzunea. Baserri bifamiliarra berriztatze. Orientazio pribilegiatua, oso eguzkitsua. Prezio interesgarria.
DURANGO. Eraikin atxiki ederra, izkinakoa, guztiz hornitua. Ia berria, estreinatze.
BERRIZ. Baserri ederra, Murgoitio zonaldean. Hiru hektareako landa baserri ondoan
//BULEGOAK ALOKAIRUAN
ABADIÑO. 40 m2-tik gorako bulegoak, 350 €-tik hasita.
// LOKALAK ALOKAIRUAN
Alde zaharrean, tamaina ezberdineko lokalak alokagai ditugu. Etorri eta galdetu.
LOKAL INDUSTRIALA SALGAI
MATIENA. 460 m2-ko lokala salgai, Bulegoa, komuna eta aldagela, oso egokia

www.inmoduranguesado.com
DURANGO 2 logela
2 balkoi
ASKATASUN Etorbidea: 2 logela, bainugela bat, egongela, sukaldea, 2 balkoi eta ganbara.
192.000€

DURANGO 1 logela
65,55 m²
ASKATASUN:Egongela, sukaldea jarrita, gela 1, komuna eta balkoi. Egoera onean eta ondo zainduta. Garajea eta trasteleku
175.000€

DURANGO 1 logela
1 komun
45,30 m²
ARRILUZA: Apartamentu polita. 45,30m2. Logela, egongela, sukaldea, bainugela bat eta garajea.
169.000€

IURRETA 4 logela
100 m²
IURRETA: 100m2. 4 logela, egongela eta sukaldea jarrita. Bainugela bata hodromasajearekin. Balkoia. Egoera onean.
179.000€

ATXONDO 3 logela
83 m²
ATXONDO: 83 m2 . 3 gela, bainugela 1, egongela, sukaldea. Ganbara pisuari gehitzeko aukera.Garaje itxia.
150.000€

DURANGO 2 logela
64,64 m²
ANBOTO: 64,64 m2. 2 gela, egongela, sukaldea handia eta bainugela.
148.000€

DURANGO 3 logela
82 m²
Komentu kalea 82m2 erabilgarri, 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoia eta ganbara. **310.000€** +BEZatik aurrera.
310.000€

//DURANGO
ARAMOTZ 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela 95.000 € / E.E.Z=G
ASK. ETORBIDEA 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, despentsa 146.000 € / E.E.Z=F
ASKATASUN ETORBIDEA Logela 1, sukaldea, egongela, bainugela, balkoi itxia, igogailua, kamarotea, garajea 175.000 € / E.E.Z=E
LANDAKO ETORBIDEA 2 logela, sukalde-jangela, egongela, 2 bainugela, 2 balkoi. Garajea. LEHEN 267.800 € ORAIN 255.000€/ E.E.Z=E
BARRENKALEA2 logela, sukaldea, egongela, bainugela 120.300 € / E.E.Z= G
BERNARDO GABIOLA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela LEHEN 85.000 € ORAIN 80.000€ / E.E.Z=E
ERRETENTXU 4 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia 210.000 € / E.E.Z=E
ERRETENTXU 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoia 205.000 € / E.E.Z=E
EZKURDI 4 logela, sukaldea, egongela, 3 bainugela 321.500 € / E.E.Z=F
FRANCISCO IBARRA 3 logela, sukadea, egongela, 2 bainugela, balkoia, despentsa 230.000 € / E.E.Z= F
GOIENKALEA 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, jantzigela 114.000 € / E.E.Z= G
HERRIKO GUDARI KALEA 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, 2 terraza. Garajea 255.000 € / E.E.Z= G
JUAN DE OLAZARAN 3 logela, sukaldea, 2 bainugela, egongela, 94m2 ko terraza. Garajea. 376.000 € / E.E.Z=B
KIRIKIÑO KALEA 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela 75.000 € / E.E.Z=G
KOMENTU 3 logela, sukaldea, egongela, terraza 135.000 € / E.E.Z= G
MIKELDI 4 logela, sukaldea, egongela, bainugela, komuna, 2 balkoi 200.000 € / E.E.Z= E
MONTEVIDEO 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela 230.000 € / E.E.Z=F
PLATERUEN PLAZA 4 logela, sukaldea, egongela, 3 bainugela. trasteroa, Garajea. 270.000 € / E.E.Z=E
ZUMALAKARREGUI 5 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 4 bainugela. Garajea. 695.000 € / E.E.Z= E
ABADIÑO Ferialeku 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Garajea. Lehen 190.000 € / Orain 175.000 € E.E.Z=G
ZELETABE 3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela. Garajea. 309.000 € / E.E.Z= F
//BERRIZ
BERRIZBEITIA KALEA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia 120.000 € / E.E.Z= F
//ELORRIO
ELIZBURU KALEA 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, garaje itxia 219.000 € / E.E.Z= E
LABAKUA KALEA 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, 2 balkoi, despentsa 198.000 € / E.E.Z= F
//OTXANDIO
GOMILAZ AUZO Baserria: Jatetxe eta etxebizitza 5hektareako lurzuuagaz 1.200.000 € / E.E.Z= G
//NOBEDADEAK
SANTASUSANOSTE KALEA 2 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoi itxia, igogailua, kamarotea, garajea 240.000 € / E.E.Z=E

anboto.iragarki laburrak.com

1 HIGIEZINAK	5 IBILGAILUAK
2 TEKNOLOGIA	6 HARREMANAK
3 LANA/MEGOSIDAK	7 ASIA/KIROLA
4 DENETARIK	8 FAMILIA/ETXEA

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzat - Erregistratu: www.anboto.iragarki laburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio eta bertan anboto aukeratu) edo bidali mezua: anboto@anboto.org.

Paperean, ordainduta: Enpresentzat - Iragarki laburretatik bereizita eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kortsultatu 94-621 79 02 telefonon.

Kormertziala behar da higiezin agentzian jornada osoan berehala lanean hasteko. Bidali curriculuma comercialinmobiariadu-rango@gmail.com

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

ETXEBIZITZAK ERRENTAN HARTU

Durango. Alokatzeko pisu bila nabil Durango. Tel.: 631-62 95 65

Lana Formakuntza

LAN ESKARIAK

LAN ESKARIAK PERTSONAK ZAINDU

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanak egiten ere. Kanpoko langilea, lanaldi erdian edo orduka lan egiteko prest. Berehala hasteko prest. Tel.: 642-55 16 29

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanak egiten ere. Barneko langilea, orduka eta asteburuetan lan egiteko prest. Tel.: 631-30 32 11

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Tel.: 663-44 85 68

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Baita atarietako garbiketa lanak egiten ere. Kanpoko langilea, lanaldi osoan lan egiteko prest. Tel.: 631-10 06 22

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Lan bila nabil pertsona

nagusiak zaintzen zein garbiketa lanetan. Barneko zein kanpoko langilea, asteburuetan lan egiteko prest. Tel.: 632-16 37 82

Umeak zaintzen edo garbiketan lan bila. Lan bila nabil umeak zaintzen edo atari zein etxeetako garbiketa lanetan. Baita jatetxeetan sukalde laguntzaile moduan ere. Barneko zein kanpoko langilea. Lanaldi osoan, gauzein orduka lan egiteko prest. Tel.: 696-58 36 71

Lan bila umeak zaintzen edo etxeko lanak egiten. Neska euskalduna ikasketekin eta esperientziarekin umeak zaintzeko zein etxeko lanak egiteko prest dago. Tel.: 662-36 41 67 / Tel.: 946-81 39 40

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen, baita garbiketa lanetan ere. Barneko zein kanpoko langilea. Orduka zein asteburuetan lan egiteko prest. Esperientziaduna eta arduratsua. Tel.: 632-99 02 54

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen, baita garbiketa lanetan ere. Barneko zein kanpoko langilea. Orduka zein asteburuetan lan egiteko prest. Esperientziaduna eta arduratsua. Tel.: 631-60 94 09

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita jatetxeetan garbiketan edo sukalde laguntzaile moduan ere. Barneko zein kanpoko langilea, lanaldi erdian, osoan, orduka, asteburuetan zein gauzein lan egiteko prest. Tel.: 691-82 93 95

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen, baita garbiketa lanetan ere. Eskarmetuduna lanaldi erdian edo osoan lan egiteko prest. Orduka, asteburuetan edo gauzein lan egiteko prest. Tel.: 691-82 93 95

Lan bila nabil pertsonak

zaintzen. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen zein garbiketa lanetan. Barneko zein kanpoko langilea. Orduka edo asteburuetan lan egiteko prest. Esperientziaduna. Tel.: 632-99 02 54

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen zein garbiketa lanetan. Barneko zein kanpoko langilea. Orduka edo asteburuetan lan egiteko prest. Esperientziaduna. Tel.: 631-60 94 09

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Barneko zein kanpoko langilea berehala lanean hasteko prest. Tel.: 612-24 53 26

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Barneko zein kanpoko langilea. Lanaldi erdian, orduka, asteburuetan, zein gauzein lan egiteko prest. Berehala hasteko prest. Tel.: 631-70 05 73

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Barneko zein kanpoko langilea. Lanaldi erdian, orduka, asteburuetan zein gauzein lan egiteko prest. Berehala hasteko prest. Tel.: 631-26 24 82

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Lan bila nabil pertsonak zaintzen, baita igeltsero lanetan ere. Barneko zein kanpo langilea, orduka lan egiteko prest. Tel.: 603-68 76 98

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Lan bila nabil pertsonak zaintzen, edo mendian animaliak zaintzen. Berehala lanean hasteko prest. Tel.: 602-01 61 86

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan edo ospitaleetan jendea zaintzen ere. Kanpoko langilea orduka zein gauzein lan egiteko prest. Erreferentziak eta esperientzia ditut. Berehala lanean

hasteko prest. Tel.: 632-72 50 54

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan edo ospitaleetan jendea zaintzen ere. Kanpoko langilea orduka zein gauzein lan egiteko prest. Erreferentziak eta esperientzia ditut. Berehala lanean hasteko prest. Tel.: 631-20 36 07

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan edo ospitaleetan jendea zaintzen ere. Kanpoko langilea orduka zein gauzein lan egiteko prest. Erreferentziak eta esperientzia ditut. Berehala lanean hasteko prest. Tel.: 632-08 98 52

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Andra arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Barneko zein kanpoko langilea orduka lan egiteko prest. Etxeko lanak egiteko prest. Tel.: 632-98 18 22

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Barneko zein kanpoko langilea, arratsaldez zein gauzein lan egiteko prest. Tel.: 628-78 93 50

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen, baita garbiketa lanetan ere. Barneko edo ordukako langile arduratsua. Berehala lanean hasteko prest. Tel.: 631-89 17 09

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Baita etxeetako garbiketa lanak egiten ere. Goizein lan egiteko prest, asteleheneetik barikura. Tel.: 606-78 76 78

Andra euskalduna lan bila pertsona nagusiak zaintzen. Andra euskalduna pertsona nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanak

egiteko prest. Tel.: 659-08 81 85

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Barneko zein kanpoko langilea. Erreferentziaduna. Tel.: 632- 66 62 13

LAN ESKARIAK IRAKASKUNTZA

Klase partikularrak ematen ditut. Neska euskalduna, administrazio ikasketak eta esperientzia duena, Lehen Hezkuntzan eta DBH partikularrak barna zein talde txikietan emateko prest. Tel.: 662-36 41 67 Tel.: 946-81 39 40

LAN ESKAITZAK

LAN ESKAITZAK PERTSONAK ZAINDU

Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan edo zerbitzari moduan ere. Kanpoko langilea, lanaldi osoan, orduka edo gauzein lan egiteko prest. Berehala lanean hasteko moduan, eskarmetu eta erreferentziak. Tel.: 632-63 24 16

Adinekoak zaintzeko prest nago. Gauzein ere bai. Gizon heldua, klinika-laguntzailea, etxeko laguntzailea gisa adinekoak zaintzeko prest. Garbiketak, mobilizazioak, aisialdia, tramiteak egiteko, etxeko laguntza... ospitaleetan, etxean...Goizein, arratsaldez edo gauzein. Autonomo gisa alta emanda, berezko aseguru zibila daukat. Tel.: 690286071 Durangaldea-Bilbo

Teknologia

TEKNOLOGIA GAINERAKOAK

TEKNOLOGIA GAINERAKOAK EMAN

Bidali zure ordenagailua Perura eta Boliviara. Hondatuta edo zahar badago, edo zaborretara bota behar baduzu, nik jaso, konpondu eta Federacion niñ@s del mundoren bitartez bidaliko dugu Peruko eta Boliviako ikastetxe eta ostialetara. e-mail: atanikz@gmail.com. Tel.: 655 717 666

CERAMICAS
MACOBER
MATERIAL DE CONSTRUCCION
Chimeneas
ERAIKUNTZAKO MATERIALA
ZERAMIKA ETA GRESA
Eitua Industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890
Tronperri kalea, 1 DURANGO - Tel.: 946 811 727

hitz liburudenda
artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com
#gomendioak


SILVIA FEDERICI
SOLDATAREN PATRIARKATUA
Helduentzat
SOLDATAREN PATRIARKATUA
Silvia Federici
(2017)

UME ETA GAZTEENTZAT UME JAKINGURATSUEN ESPERIMENTSU LIBURUA
Asia Citro
(2017)

ERRIAK
Bultz!
(2017)

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENEKO 14:00AK ARTEKO EPEA



**GOZATU
GOZOTEGI-OKINDEGIA**

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozategia

Hamabostean behin jasotako zorio-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrekin batera.



Zorionak, **Miguel Angel** Kali-ko lagunaren partez.



Hiru urte bete dozuz poxpolintxu! Patxito pilla guztion partez!



Urtarrilaren 23an, gure etxeko De La Torretar gaztienak 11 urte bete ditu. Zorionak, **Ainhoa!** Musu asko etxekoen partez.



Zorionak, **Endika**, zure 6. urtebetetzean. Egun polita eta alai pasa. Zure gurasoak Lander eta Ana, Irati, amama Enkarna eta aitteitte Karlosen partez.



Urtarrilaren 25ean gure poxpolin handiak 3 urte egin zituen. Zorionak, maitia! Muxu bat etxekoen partez!



Zorionak, **Inhar!** Mutil handi. Musu handi bat eta besarkada bat, Eider, Raket eta Ibonen partez.



Gaur **Mairerrek** urteak egiten ditu. Pozik ospatuko dau familia ta lagunakin. Zorionak, Helene, aita eta amatxon partez.



Joner martitzenien eta **Markek** gaur bosna urte beteko dabez. Zorionak bikote eta moxu bat etxekuen partez!



Zorionak Unai! Ondo pasa eguna. Jaso ezazu zorion pottolo bat eta segi beti bezain artista. Marko eta Maddi.



Eguaztenean etxeko sorgintsuak 4 urte bete ebezan. Jarraitu horren alai. Mosu potolo bat zure neba Oinatz, aita eta amaren partez.



Esan EZETZ boladan dauden dieta “miragarriari”

Kilo erdi hartzen dugu Eguberrietan batezbeste, baina 6 kilo ere zenbait kasutan. Dietetikako Britainiar Elkarteak dioenez (BDA si-glak ditu ingelesez, eta nutrizionisten erakunde profesionala da, 8.000 kide baino gehiago dituena), urtarrelean pertsona askok ekiten diote soberan dituzten kilo horiek kentzeko ahaleginari. Horretarako, BDAREN iritziz, garrantzitsuagoa da gogoan hartzea zer ez den egin behar. Horregatik, bere web-orrian testu bat argitaratu du berriki, eta guztiz desegokiak diren 3 dietaren inguruko oharren egiten ditu. “Plan dietetiko” horiek guztiek bi ezaugarri izaten dituzte: epe motzeko arrakasta bermatzen dute eta ia ahaleginik egin gabe. Baina ez da hala. Ez dira egokiak pisua galtzeko edo osasuna hobetzeko, eta arrisku larrian jar dezakete osasuna. Izen bat baino gehiago hartzen dituzte: dieta miragarriak, magikoak, modakoak, heterodoxoak... Honako hauek dira:

Azukrerik gabeko dietak. Egia da azukre sinpleak ahalik eta gutxien hartzea komeni dela, baina erregimen honek karbohidrato mota guztiak kentzea proposatzen du. BDAREN esanetan, “nahasmena da nagusi” dieta mota honetako batean azaltzen diren ohar eta aipamenetan: aza kizkurraren eta txiklearen dieta. Muturreko dieta da, isolamendu soziala sortzen du, desorekatua da, denboran nekez eusteko modukoa eta potentzialki kaltegarria. Balen aurkako dieta. Erregimen honek arrakasta lortuko dugula agintzen du kafea gurinarekin hartuz eta MCT esaten zaion olio motarekin. Era berean, elikagaiak sailkatu egiten ditu, “onak” eta “txarrak”, baina oinarriarik gabeko sailkapena da, asmakeriatan oinarritzen dena.

Botikak

BARIKUA, 26 - 09:00-09:00

UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO
GUARROCHENA, LIDE Bide Zahar 14 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**
SARASKETA, DIEGO Luis Urrongoetxea 5 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

ZAPATUA, 27 - 09:00-09:00

BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO
GUARROCHENA, LIDE Bide Zahar 14 - ZORNOTZA
09:00-13:30
UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO
BAZAN DIAZ Urbarri 5 - DURANGO
NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO
DE DIEGO Intxaurrondo 22 - DURANGO
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO
SAGASTIZABAL Askatasun etorb. 19 - DURANGO

JAIO-OLABARRIETA Errekakale 6 - ELORRI

EGUREN, ISABEL Trañabarren 15 - **ABADIÑO**
GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
09:00-14:00
IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA
09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**
SARASKETA, DIEGO Luis Urrongoetxea 5 - ZORNOTZA

DOMEKA, 28 - 09:00-09:00

BAZAN DIAZ Urbarri 5 - DURANGO
GUARROCHENA, LIDE Bide Zahar 14 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SARASKETA, DIEGO Luis Urrongoetxea 5 - ZORNOTZA

ASTELEHENA, 29 - 09:00-09:00

DE DIEGO Intxaurrondo 22 - DURANGO
GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**
SARASKETA, DIEGO Luis Urrongoetxea 5 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

MARTITZENA, 30 - 09:00-09:00

MUGICA Andra Maria 9 - DURANGO
GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**
SARASKETA, DIEGO Luis Urrongoetxea 5 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 31 - 09:00-09:00

ETXEBARRIA Montevideo etorb. 2 - DURANGO
GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**
09:00-22:00
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
SARASKETA, DIEGO Luis Urrongoetxea 5 - ZORNOTZA
EGUENA, 1 - 09:00-09:00
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO
GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
SARASKETA, DIEGO Luis Urrongoetxea 5 - ZORNOTZA



urtxintxa
jostailu denda

Zuengandik gertu
Andra Mari kalea 9 - 94 400 39 69



ALDEKOA-OTALORA iturgintza
ITURGINTZA - BEROGINTZA - AIREA - GASA
MANTENIMENDU INDUSTRIALA
info@aldekoatalora.com - 692 859 779
Zubiaurre, 8 IURRETA - 946 202 768
Ind. Arzubia - Pab. 13-14 ABADIÑO - 944 071 791

“Mahai-jokoek burmuina eta sormena lantzeko balio dute, eta gero eta harrera hobea dute”

Mahai-jokoan I. Jardunaldiak antolatu dituzte domekan Zaldibarren. Liburutegi zaharreaan elkartuko dira, Odisea elkartearen eskutik, 10:30etik 13:30era eta 15:30etik 18:30era

AKUILUA • AITZIBER BASAURI

Eibarko Odisea elkarteko kidea da Mikel Auñon zaldibartarra. Duela urtebete murgildu zen mahai-jokoan munduan X-Wing miniatura jokoaren eskutik, eta aisialdirako alternatiba “interesgarria” direla uste du. Rol-jokoan inguruan ezjakintasun handia dagoela ere badio.

Mahai-jokoan I. Jardunaldiak izango dira etzi Zaldibarren. Zer topatuko du bertaratuko denak?

Mahai-jokoan mundua oso zabala da, aukera handia dago. Badaude joko oso konplikatuak, eta ulertzeko, barneratzeko, errazagoak direnak. Jokatzeko hasi gura dutez gero, jokatu direnak eraman- gogotuz gero Zaldibarrera, eta askotariko jokoak probatzeko aukera eskainiko dugu.

Noiz sartu zinen jokoan munduan?

Urtebete izango da. Bataila espazialen itxura egiten duen X-Wing miniatura jokoagaz. Askok gustatu zitzaizkidan, eta oraindik ere jarraitzen dut. Estrategia jokoak da, mugimenduzkoa eta lehiakorra. Joko irekia da: denbora baten barruan gaurkotzen dena. Hilabete batzuren ostean, eguneratutako bat kaleratzen dute: espaziontzi berriak, arau berriak... etengabe eboluzionatuz doa. Halakoekin ez zara inoiz aspertzen. Joko itxiak ere badaude. Horiek hainbat aldaera izan ditzakete, baina ez dira irekiak. Publiko mota guztietarako jokoak daude.

Mundu ezezaguna da?

Bai. Hala ere, gero eta ezagunagoa da. Gero eta jarraitzaile gehiago ditu. Internetek ere asko lagundu du jokoan mundu hau ezagutzarazten.

Aukera handia dela diozu. Ze adinetik aurrera hasi daiteke jokatzeko?

Hiru-lau urtetik 99 urtera bitartean. Jokoak adinari egokituta-

koak dira, baina, askotan, adina ez da muga bat izaten. Ezagutzen dut X-Wing jokoan helduekin dabilen zazpi urteko mutikoa, Barakaldoko mahai-jokoan elkarte bateko ezagun baten semea. Joko oso lehiakorra da. Estatuan ez ezik, Europan eta mundu osoan ere antolatzen dira lehiaketak. Rol-jokoak konplexuagoak dira. Elkartean denetariko jokoak ditugu. Betikoak ere bai, bilduma moduan gordetzen ditugu. Mahai-jokoak eskulana ere bada- kar: jokoan hainbat pieza geuk egindakoak dira; 3Dn inprimatu eta margotutakoak.

Nori zuzenduta antolatu duzue Zaldibarren jardunaldia?

Herrietan, askotan, aisialdirako aukerarik ez duen adin-tarte bati erantzun gura izan diogu: 13-17 urteko gazteei. Gaztetxoagoentzako jokoak ere badaude, baina mahai-jokoetan murgiltzeko saio bat izan gura du. Lokalean telebista aurrean edo kontsolekin ibili beharrean, aisialdirako anternatiba oso interesgarria da. Gurasoek seme-alabekin edo

Mikel Auñon Ojenbarrena
Odisea elkarte
Zaldibar | 1981

lagunartean jokatu dezakete. Gainera, burmuina eta sormena lantzeko balio dute, eta gero eta harrera hobea dute, komunitate gero eta handiago osatuz.

Zeintzuk dira jokorik arrakastatsuenak?

Joko lehiakorrek dute komunitate handiena. X-Wing-ek za-

balkunde itzela du AEBetan; halaber, Star Wars dela-eta, gaigaz lotutako hainbat sortu dira orain. Modan dago. Rol-jokotik eratorritako La leyenda de los cinco anillos karta-jokoak ere arrakasta handia du, Erdi Aroko Japonian girotutakoa.

Atxikimendua sortzen dute?

Mendizalea astebururo mendira doan lez, guri joko hauetan aritzea gustatzen zaigu. Itsutu gabe. Ez da dirurik erabiltzen eta ez

dago irabazteko grinarik. Ondo pasatzeko, dibertitzeko jokatzeko dugu.

Rol-jokoan inguruan eztabaida handia dago gizartean.

Ezjakintasun handia dago horren inguruan, eta rol-jokoari min handia egin zaio. Jokoari egotzi zaio jarrera biolentoa izatea, baina pertsonaren ardura edo erantzukizuna da. Aukera handia da, rol-jokoak ez du zertan bortitza izan. Fantastikoa izan daiteke, herrialde bateko presidente izatea helburu duena... fikziozko pertsonaia dira, mitologikoak edo asmatutakoak. Istoria gida- tzen duen narratzaile bat dago, eta jokalariek dagokien pertsonaiaren ezaugarriekin jokatzeko dute. Badago rol-jokoetan sartuko ez nukeen aldaera, rol-jokoa errealitate eramatzen duena: simulazioa. BECen egin zen zombien rol-joko baten simulazioa; 30.000-40.000 lagun batu ginen eta ez zen ezer pasa. Rol-jokoetan, kooperazioa, laguntasuna... sustatzen da gehiago, berariazko bortizkeria baino.

Zein onura dute mahai-jokoek?

Aisialdirako alternatiba da, larregizko gastua egin barik. Mundu desberdin bat eza-

gutzeko au-

kera da eta sormena sustatzen dute, pentsarazi egiten dute... Ikerketa batzuen arabera, irakurketa eta kontzentrazioa sustatzen dute, pentsatzea, eta zenbait eskolatan joko batzuk sartu gura dituzte. Positiboak dira, ume zein helduentzat. Nik neuk esperientzia oso ona izan dut, eta jende piloia ezagutu dut.

Lau- hortza

Bixente Aizpurua Eguren
Irakaslea



Hil aurretik...

Aurreko baten, Hilario Azkarate frontoiaren ertzetik pasatzean zenbait pertsona heldu ikusi nituen klariona eskuetan eta zerbait idazten arbel beltz batean. Momentu hartan ez nuen denborarik, ezta kotxea uzteko tokirik ere, eta aurrera egin nuen. Jakin-minak bultzatuta, hurrengo egunean bertaratuta eta arbel horretan, euskaraz zein gaztelaniaz, zenbait esaldi zeuden idatzita: Hil aurretik euskaraz mintzatu nahi dut, bidaiatu nahi dut, iloba besoetan izan nahi dut, nire ingurukoak ondo izatea nahi dut, etab. Esaldi sakon eta sentimenduz beteriko asko azaltzen ziren bertan.

Proposamen polit eta hunkigarri hau Mankomunitateak eta Behargintzak 55 urtetik gorakoentzat antolatutako seminario baten ondorio izan da. Ekintza hau Candy Chang artistak jarri zuen martxan New Orleansen, eta dagoeneko bost urte daramatza munduan zehar bueltaka. Eta begira, non eta Erorrion hartu du lurra edo, hobeto esanda, arbela eta klariona.

Zorionez, bizi itxaropena gero eta luzeagoa da, eta dagoeneko Euskal Herrian gorenean gaude, eta urteetan aurrera goazenok gero eta aktibagoak gara, ez gaude prest bazter baten aieneka egoteko, gelditzen zaigun denborari zukuera atera nahi diogu.

Poztekoa da gizon zein emakume adintsu gehiago ikustea kirola egiten, dantzan, bidaiatzen, teknologia berrietan trebatzen, idazten, irakurtzen, ikasten, laguntzen...

Bukatzeke, eta, leiho txiki honetatik, aurrera egiten eta denborari errenta ateratzen animatzen zaituztet, erregairik onena eta merkeena bizipoza baita. Bizi gaurkoa biharkoari begira egon gabe. Hala bedi.

ITSAS BIDAIAK

300€^{RA} ARTEKO DESKONTUA

ETA EDARI SORTA DOAN!!!

Auzoak? Egaz lagun!